


# SAREKO SORKUNTZA

# ETA KULTURA SAREAK

2011ko ABENDUA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Argitaraldia**

1.a, 2012 martxoan



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

**Internet**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

**Diseinua  
eta maketazioa**  
ekipoPO

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>5</b>
<b>2. Sareko sorkuntza. Esparru teorikoa.....</b>	<b>7</b>
2.1. Sarea, gaur egungo antolamendu-sistema.....	7
2.2. Kultura-sareak .....	7
2.3. Sorkuntza kolektiboa .....	9
2.4. Testuinguru berria .....	10
<b>3. Kultura-sareen babesa .....</b>	<b>13</b>
3.1. Nazioarteko eremua.....	13
3.2. Estatuko esparrua .....	17
3.3. Babes-esparrua EAEn.....	18
<b>4. Sareak eta sorkuntza-ingurunea EAEn .....</b>	<b>19</b>
4.1. Testuinguru orokorra .....	19
4.2. Sorkuntza Fabriken programa .....	19
4.3. EAEko sorkuntza-agenteen mapa .....	21
<b>5. Laburbiltzeko .....</b>	<b>27</b>
5.1. Sareko sorkuntzari eta gaur egungo sorkuntza-sistemari lotutako funtsezko ideiakBibliografia .....	27
5.2. Orientabide orokorrak.....	27
<b>Eranaskinak .....</b>	<b>29</b>
1. eranskina: erakundeen kultura-sareak, Europar Batasunak finantzatuak .....	29
2. eranskina: kultura-sare independenteak .....	37



## 1. Sarrera

Azken urteotan sorkuntza-ingurunean gertatu diren aldaketen ondorioz, antolamendu- eta babes-egitura publikoak gogoeta-une batean daude gaur egun. Diru-laguntza ildoak eta azpiegituretan eta proiektuetan egindako inbertsio publikoak oinarri dituzten sistema tradizionalak dagoeneko ez diote guztiz erantzuten sorkuntza- eta kultura-errealitateari, ezta administrazio publikoen bilakaerari berari ere. Izan ere, gaur egungo gizarte konektatu eta globalizatuan, sorkuntza-prozesuak eta kultura-agenteen antolamendua ez datoz bat egitura garbi eta estatikoekin. Era berean, kultura-sektorearen eta gizarte osoaren premien eta errealitate berriaren ondorioz, kultura-politikak aldaketa-prozesu batean murgilduta daude.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sorkuntza-ingurune eta sorkuntza-ekimen berriak aztertzeko eta bere zeregina sortzen diren premietara egokitzeko borondatea du. Horren azken helburua kultura Euskadi barruan babestea eta sustatzea, eta euskal sorkuntza kanpora proiektatzea da. Horrela, beraz, premia horiei erantzuteko asmoz, Kulturaren Euskal Behatokiak dimentsio hirukoitz batetik abiatuta egin du txosten hau:

- Sarean sortzeko eta antolatzeko modu berriek dakarten paradigma-aldaketarako hurbilketa teoriko bat lantzea.
- Horrelako erakundeak eta egiturak sustatzera zuzendutako egungo babes-esparrua eta bilakaera aztertzea, nazioartean, Estatuan eta Euskadiko errealitate zehatzean.
- Gaur egungo ingurunearekin eta joerekin bat etorriko diren kultura-politikak zehazteko baliagarriak izango diren hainbat ondorio eta orientabide ezartzea.



## 2. Sareko sorkuntza. Esparru teorikoa

### 2.1. Sarea, gaur egungo antolamendu-sistema

Sarea gizartea antolatzeko modu gisa erabiltzea ez da gaur egungo kontua, baina antolamendu horizontal horien funtzionaltasuna bultzatzen duten informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) eta elkarri gero eta konektatuago dauden egitura sozial, politiko eta ekonomikoek goragoko maila batera igo dute “sare” kontzeptua gaur egungo gizartea ulertzeko eta aztertzekeo garaian.

Gaur egungo informazioaren gizartearen funtsezko ezaugarri bat sareekiko mendetasuna da. Izan ere, sareak morfologia eta egitura sozialaren elementu nagusiak dira, eta indartu egin dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (Castells; 2000). Gaur egungo gizartearen eta sare-sistemaren arteko loturaren arrazoia, Castellsen ustez, egitura mota horrek erabakiak hartzeko garaian ahalbidetzen duen malgutasuna, koordinazioa eta arintasuna da. Izan ere, egitura horiek oso baliagarriak dira gaur egungo gizartearen funtzionamendurako eta dinamiketarako. Gaur egungo testuinguru politikoan eta, batez ere, ekonomikoan, estatuak gobernu arteko harremanen erakunde-sare zabal baten nodulu bihurtu dira; zenbait autorek sare-gizarte deitzen diote horri.

Sare-gizarte hori informazioan eta jakintzan oinarrituta dagoen eta sareko informazio-ekonomia global bat sortu duen iraultza teknologiko baten ondorioz sortu da. Informazio-ekonomia da, informazioaren sorkuntza eta eraldaketa funtsezkoak baitira produktibitatean; globala da, mundu osoan funtzionatzen baitu; eta sarekoa da, antolamendu mota hori maila guztietan (sozialean, politikoan, ekonomikoan eta kulturean) dauden sistemen, fluxuen eta dinamiken ezaugarri bereizgarria baita.

Hala ere, “sare” kontzeptua analisi eta ikuspegi soziologiko, politiko eta ekonomikoetan ezartzeaz gain, eta sare-sistema batean oinarritutako paradigma berri bat izateaz gain, esan daiteke sarea eta net, *network* eta *networking* izenekoak gaur egungo diskurtsoetan indar handiz ezarri diren kontzeptu bihurtu direla.

Beraz, sareak antolamendu-sistema gisa erabiltzeko aukera egokia eta beharrezkoa da gaur egungo errealitatea aztertzekeo, herrialde garatuetako gizarte guztietan agertzen baitira, eremu guztietan gainera.

### 2.2. Kultura-sareak

Europako kultura-sareak 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran sortu ziren. Neurri handi batean, Europako funtsak eta diru-laguntzak lortzeko baldintza gisa hainbat herrialdeetako agenteen parte-hartzea lortzeko beharrezkoak sortu ziren. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) egindako azterlan batek berretsi egin du hori. Horrela, beraz, kulturaren eremuko erakunde horien jatorria, neurri handi batean, proiektuak nazioartekotzeko premia operatiboa izan da. Dena dela, nazioartean, estatuetan eta eskualdeetan sortutako aliantza horietako askoren bilakaerak eta

sendotzeak erakutsi dutenez, kulturaren eremuko sareko antolamenduaren onurak askoz haratago doaz, eta antolamendu horren funtzionamendu-sistema, egitura hierarkikoak baino horizontalagoa eta arinagoa izateaz gain, operatibotasun handiagoa ahalbidetzen du.

90eko hamarkadaren hasieran sortutako kultura-sareak erakunde publikoen babesarekin sortutako sare formalak ziren nagusiki. Anne-Marie Autissier-ek proposatu duenez, hiru etapa historiko izan ziren Europako kultura-sareen garapenean: lehen etapan, aniztasun-ikuspegi bat izan zen nagusi topaketa, elkartruke eta eztabaidarako foroetan, eta proiektu komunak sortu ziren foro horietan; bigarrenean, sare espezializatuak ugaritu ziren eta *policymaker* izenekoek aurrean beren ordezkaritza ziurtatzeko sortutako foroetan taldekatu ziren; azkenik, hirugarren etapak —hots, gaur egungoak— egindako ekarpen profesionalen eta intelektuaren inguruko barne-eztabaida eta “sare” kontzeptuaren beraren inguruko gogoeta ditu ezaugarri bereizgarri.

Kultura-sareak aztertzeko ahaleginean, hainbat sailkapen eta tipologia planteatu dira. Adibidez, Europako Batzordeak antolatutako Europako Kultura Lankidetzari buruzko Foroan hiru mota bereizi ziren:

- ideiak eta jarduteko moduak partekatzeko aukera lehenesten duten elkartruke- eta elkarriketa-bektore gisako sareak,
- lankidetzak-akordio baten esparruan zehaztutako lan bat egitera bideratutako jarduerak biltzen dituzten proiektuak hasten dituzten sareak,
- lehenetsun gisa eragiketa jakin bat egitea duten proiektuak kudeatzeko sareak.
- Kultura-sareen helburuak eta funtzioak askotarikoak badira ere, hainbat funtzionamendurik ezar daitezke (Partal; 2010):
- Sareak kultura-ekintza gizarte-printzipioetan oinarrituta eta kultura-politiken demokratizazio, formulazio eta ezarpenaren logikatik abiatuta zabaltzeko aukera ematen duten agente gisa.

Kultura-sorkuntza kulturarteko testuinguru globalizatu batean garatzeko funtsezko faktore gisa.

- Kohesio eta inklusio demokratikorako elementu gisa.
- Hurbiltasun-elementu gisa, sareek sortutako guneen bidez garatzen diren kultura-proiektu eta kultura-proposamen komunitarioen bitartez.
- Hainbat kultura-agenteren parte-hartzea eragiten duen eta, era horretan, erantzunkidetasun handiagoa eta erantzuteko eta ingurunea eraldatzeko ahalmen handiagoa dakarren fenomeno gisa.



Sailkapen hori zabala eta barne-hartzailea da, eta kultura-sareek azken bi hamarkadetan beren gain hartu duten funtzioaren ikuspegi orokor bat izateko aukera ematen du<sup>1</sup>. Oro har, jakintzaren transmisioan eta kultura-merkatu potentzialen garapenean oinarrituta interes komunekoa lan-ildoak sendotzen dituzten eta kideen lana babesten duten tresnatzat hartzen dira kultura-sareak. Kultura-industriaren prozesu zaharrak prozesu berriekin lotzean, kontzertaziorako guneak eta kultura-ekimenak sortzen dira, eta emaitza aldebiko eta alde anitzeko ekintzen ondorioa da.

Azterlan honen bidez, beste urrats bat egin nahi da, eta, horretarako, sareko antolamenduaren oinarri den eta kontzeptuaren beraren ikuspegi berria dakarren antolamendu informalarri jarriko zaio arreta. Hala ere, arestian adierazi dugunez, sortu diren eta abian diren sareetako –eta, batez ere, halakotzat aurkezten diren eta gainerako agenteek aitortzen dituzten sareetako– askok egitura eta antolamendu formal zehatza eta nortasun juridikoa dute (elkarteak, fundazioak eta abar).

### 2.3. Sorkuntza kolektiboa

Zaila da “sorkuntza kolektibo” kontzeptua definitzea, oso konplexua baita zehaztea sorkuntza batean non amaitzen den banakotasuna eta noiz hasten den kolektibotasuna. Erreferentzia gisa, berariazotasun-irizpide baten arabera sorkuntza kolektiboaren modalitateak biltzen dituen sailkapen zabal bat har daiteke. Horren arabera, banakoaz haraindiko sorkuntza, talde-sorkuntza eta sorkuntza kolektiboa bereiz daitezke (Passeron; 1981).

Banakoaz haraindiko sorkuntza banakoen arteko harremanen edo elkartrukearen bitartez egiten dena da; talde-sorkuntza, berriz, hainbat banakoren arteko lankidetzaren prozesutik abiatutako sorkuntza da; eta, azkenik, sorkuntza kolektiboa gizarte-talde zabalen jardueraren guztien emaitzazko sorkuntza da.

Hala ere, sailkapen hori zaharkitu samar geratu da, eta nekez aplikatu daitezke gaur egungo gizartean, ez baititu kontuan hartzen teknologia berrien eta Interneten erabileran oinarritutako sorkuntza kolektiboaren modu berriak. Izan ere, gaur egun, “sorkuntza kolektibo” kontzeptua Passeronek landutakoa baino askoz zabalagoa da, teoriarik nahiz praktikan.

Adibidez, Frank Popper-ek arte herrikoi berriarekin lotzen du “sorkuntza kolektibo” kontzeptua. Arte horretan, zaleen protagonismoa (parte hartzen duen eta obraren sortzaile bihurtzen den ikuslea barnean hartuta) eta bitarteko-zeregina betetzen duen artistaren trebetasunak konbinatzen dira (Marín; 2008). Autore horren ustez, arte berria kolektiboa da ezinbestez, eta arte herrikoiaren eta arte jasoaren arteko ohiko bereizketa gainditzea dakar. Popperrek hiru mota bereizten ditu sorkuntza kolektiboaren barruan: sorkuntza kolektibo ez-artistikoa, taldeen sorkuntza artistikoa eta sorkuntza kolektibo mistoa (profesionalek eta zaleek lankidetzan egiten dutena). Teoria eta sailkapen hori Passeronen garaikidea da eta,

<sup>1</sup>Txosten honen eranskinetan, nazioartean erreferentziazkoak diren hainbat kultura-sarearen deskribapena agertzen da.

hark bezala, ez du kontuan hartzen IKTek betetzen duten zeregina, baina askoz hurbilago dago azken urteotan kontzeptu horren inguruan planteatu den ideiatik.

Ildo horretan, sortzailearen eta publikoaren arteko iragazkortasuna eta jabetza intelektualaren eta informazioaren eta edukien zirkulazio librearen inguruan dauden ikuspegiak direla-eta, heterogeneoagoa den errealitatearekin bat etorriko diren eta inklusiora eta malgutasunera irekiago egon behar duten planteamenduak behar dira.

## 2.4. Testuinguru berria

“Sorkuntza kolektiboa kultura digitalaren edukirik iraultzaileena da; kultura tradizionalarekiko bereizketa hobekien errazten duena benetan kolektiboa den kultura bat eraikitzeko aukera da” (Casacuberta; 2003).

Hainbat autorek landu dute sorkuntza kolektiboaren eta IKTen arteko lotura, eta, gaur egun, gehienek lotura bereiztezina ezartzen dute bi kontzeptuen artean. Gainera, bereziki azpimarratzen dituzte zenbait alderdi, hala nola software librea edo Creative Commons lizentziak. Ildo horretan, “sorkuntza” kontzeptuak sormenaren eremua gainditzen du neurri handi batean, eta hainbat egileren esku-hartzearekin egindako sorkuntza mota oro adierazten du. Planteamendu horrek aurreko atalean adierazitako Popperren postulatuei jarraitzen die nolabait ere. Egilekide edo sortzailekide horiek hainbat fasetan, hainbat mailatan eta hainbat modutan esku har dezakete, eta, garrantzitsuena dena, askotan egiletzaren kontzientzia bigarren maila batean geratzen da.

Casacubertaren azterlana Interneten eremuan oinarrituta dago; haren ustez, hartzaileen (publikoaren) inplikazioa eta hartzaileak sortzaile bihurtzeko prozesua da sorkuntza kolektiboaren funtsa. Autore horrek dioenez, paradigma berri batean gaude gaur egun. Paradigma horretan, IKTek eta, bereziki, Internetek atzean utzi dute publiko pasiboaren figura.

Horrela, beraz, “on-line tailer” berriek, erabiltzaileen arteko harremanaren eta multimedia-sistemen berezko askotariko jatorri eta izaeratako euskarri eta edukien ondorioz, gero eta neurri handiagoan ahalbidetzen dute produkzio eta egiletza partekatua (Alberich; Roig; 2010).

Testuinguru horietan, egiletzaren gaia oinarritzko gogoeta-gaia dela esan daiteke, ingurune elkarreragileetan egiletza lehen egilearen edo egileen eta erabiltzailearen artean partekatzen baita. Sistema analogikoen berezko linealtasuna haustean, sorkuntza kolektiboaren hainbat fasetan eta unetan gauzatzen den kategoria hori ager daiteke, eta sorkuntza mota berriak definitzen ditu.

90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, sorkuntza kolektiboko ekimen asko sortu dira. Lehen adibideak net.art izenekoan edo gaur egun konplexutasun- eta eragin-maila handiago

batera iritsi diren adierazpen apropiazionistetan (foroen sorkuntza, afinitate-sareak eta abar) ikus daitezke.

Sorkuntza mota hori eta sareko funtzionamendua nagusi dira gaur egungo sorkuntza-ingurunearen zati handi batean, eta, dirudenez, lan- eta funtzionamendu-ildo horiek aurrera egiten eta finkatzen jarraituko dute etorkizunean.

Gaur egungo sorkuntza kolektiboko sareen eta ekimenen informaltasunak malgutasun handia ahalbidetzen du. Gainera, sare eta ekimen horiek formaltasuna hausten dute agenteen eta sortzaileen arteko harremanetan, eta horrek, nolabait ere, lankidetzan oinarritutako lan-ingurune hurbilagoa eta normalizatuagoa dakar. Harreman mota horien adibide paradigmatico bat software librearen agerpena eta hedapena da<sup>2</sup>. Lan-, sorkuntza- eta zabalkunde-eredu berri hori urrats handia da lankidetzakulturaren. Lizentzia tradizional murriztaile eta garestiek ez bezala, software librearen lizentziek erabiltzaile bakoitzaren premietara egokitutako erabilera-marjina bat ahalbidetu, eta komuna denean oinarritutako ideiak sustatzen dituzte. Era horretan, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia gainditzen dute. Richard Stallman-ek “software libre” kontzeptua asmatu zuenean, programen malgutasunik ezaren ondoriozko arazoei irtenbidea eman eta softwarea programatzen eta garatzen dituzten pertsonen aspalditik egiten ari zirena (hau da, jakintza eta hobekuntzak partekatzea eta, ekarpen indibidualen bidez, denontzako onura sortzea) formalizatu zuen.

Laburbilduz, joera-aldaketa baten aurrean gaudela esan daiteke. Aldaketa horrek aurreko funtzionamendu motekiko hausturarik ez badakar ere, top-down sistema formal batetik IKTetan, diziplina-aniztasunean, diziplinartekotasunean eta elkartrukean oinarritutako bottom-up sistema baterako jauzi progresiboa erakusten du.

Testuinguru berri hori zein agente mota berriak, nolahi ere, antolatzeko eta lan egiteko era formalagoak baino zailagoak dira aztertzen eta ulertzen. Horien etengabeko iraungitzearen eta informaltasunaren beraren ondorioz, ezaugarriak zehaztea oso zaila da, eta, zenbaitetan, ezinezkoa. Hala ere, etorkizunerako estrategiak zehazteko garaian, ezin zaio bizkar eman errealitate konplexu horri: sorkuntza eta sormena sustatzen jarraitzeko, ulertu egin behar dira.

Horrela, beraz, txosten honen bidez sare berrietara eta sorkuntza kolektibora hurbildu nahi da, eta horren asmoa ez da errealitatearen mapa egitea, eredu berri horiek sortutako dinamikak eta sorkuntza-ingurunea identifikatzea baizik.

---

<sup>2</sup>Programa edozein asmok erabiltzeko askatasuna, programak nola funtzionatzen duen eta erabiltzailearen premietara nola egoki daitekeen aztertze askatasuna, programaren kopiak banatzeko askatasuna eta programa hobetzeko eta hobekuntzak gainerakoei ezagutarazteko askatasuna (era horretan komunitate osoarentzat onuragarriak izan daitezkeen) bermatzen duen softwarea hartzen da software libretzat.



## 3. Kultura-sareen babesa

### 3.1. Nazioarteko eremua

#### 3.1.1. Aurrekariak

Historikoki ekonomiara eta merkataritzara bideratuta egon zen Europar Batasunak (EB) Europan kultura zaintzeko, zabaltzeko eta garatzeko kultura-ekintzak txertatu zituen bere helburuetan eta politiketan, eta Maastrichteko Ituna (1993) izan zen horretarako lehen urratsa. Dena dela, EBren zeregina estatu kideetako kultura-operadoreen arteko lankidetzak sustatzera edota horien ekimenak osatzera mugatzen da, eta estatuko edo eskualdeko aniztasuna errespetatzen saiatzen da, kultura-herentzia komuna agerian jartzeko borondatean babestutako ekintzetan eta programetan oinarrituta. Horretarako, kultura-ekintzak babesten dituzten tresna batzuk sortu ditu EBk, hala nola Kultura Programa eta Kulturaren Europako Hiriburutza.

Europan kulturaren sustapenean diharduten agente nagusiak gainbegiratu gero, Erkidegoan kultura-arloan garatutako estrategia eta lankidetzak mota eraginkor gisa areko antolamenduaren alde egindako apustua ikusiko dugu. Ildo horretan, esan daiteke sareak aspalditik direla Europako kultura-lankidetzako eragile egiaztatuak.

#### Europako Kontseilua

Europako Kontseiluaren kultura-programek hainbat etapa eta jardun-eremu izan dituzte urte hauetan. Adibidez, adiskidetzan eta elkarrekiko aintzatespenean oinarritutako etapa batetik diskurtso komun bat sortzera eta kultura-aniztasunari lotutako erronkez jabetzera bideratutako etapa baterako urratsa egin da (Weber; 2002).

1954. urtean, Europako Kultura Hitzarmena<sup>1</sup> hartu zen kulturaren, hezkuntzaren, gazteriaren eta kirolaren arloko Europako lankidetzarako funts gisa, eta, handik aurrera, Europako Kontseiluak Europako herrialdeen artean kultura-lankidetzak, jakintza eta elkar ulertzea sustatzera bideratu ditu bere ekintzak.

Dena dela, erakunde hori Europako kultura-arloko diskurtsoen garapenean erabakigarria izan bada ere, eta bere garaian lankidetzak urriko kultura-eremuetan sare bidezko taldekatzeak bultzatu bazituen ere, haren ekintzaren eta benetako eraginaren maila urria da babesaren ikuspuntutik.

#### UNESCO

Bestalde, UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak) honako gai hauetan oinarritu ditu bere programak eta babesa: kultura-aniztasuna, bakearen kultura eta giza eskubideen edo kultura-politiken eremuko UNESCO katedrak. Eta, aldi berean, berariazko arazoak dituzten eremu geografiko jakin batzuetan oinarritutako lanak egin ditu.

<sup>1</sup><http://conventions.coe.int/Treaty/en/Treaties/Html/018.htm>.

Hala ere, azpimarratu beharra dago UNESCOk garatu zuen politikan gobernuen sareko lana nazioarteko sareen bidez osatu behar zela gobernuen kanpoko sektorean. Ildo horretan, elkartruke mota hori bultzatzeko asmotan, Zagrebeko Garapenerako eta Nazioarteko Harremanetarako Institutuak (IRMO) 1989an Culturelink (Network of networks for Research and Cooperation in Cultural Development)<sup>2</sup> izeneko munduko sareen sare bat sortzeko garatutako ekimena bultzatu zuen UNESCOk. Sare hori martxan dago oraindik gaur egun.

UNESCOk berak erakundearen babesean gai jakin batzuk lantzerantz zuzendutako zenbait sare ditu hainbat eremutan. Sare horien artean, UNESCOren Eskola Elkartuen Planaren Sarea eta Berrikuntzaren aldeko Unibertsitateen Sare Globala (GUNI) aipa daitezke.

### 3.1.2. Europar Batasuna

Azkenik, kultura-eragileei zuzenean laguntzeko programen eta ekintzen bidez kultura eta sorkuntza-sektoreak sustatzen dituen erakundea Europar Batasuna da, eta, zehazkiago, Europako Batzordea.

Gaur egun, Europako Batzordeak kultura sustatzeko eginkizuna bi ildo nagusitan oinarrituta dago: alde batetik, kultura-dimentsioa EBrentzat interesgarriak diren beste eremu batzuetan (hala nola industria-politikan) txertatzeko prozesua eta kultura-politikak daude, eta, bestetik, finantza-babesa, zatirik handienez Kultura Programan bildua<sup>3</sup>.

Kultura Programaren helburuak bilakatu egin dira neurri batean urte hauetan, eta, gaur egun (2007-2013 aldirako), honako helburu hauek ditu:

- kultura-sektorean diharduten pertsonen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzea;
- artearen eta kulturaren arloko obren eta produktuen nazioz gaindiko zirkulazioa sustatzea;
- kulturarteko elkarrizketa sustatzea.

Programa horrek 400 milioi euroko aurrekontua du 2007-2013 aldirako, eta hainbat laguntza mota ditu:

- Kultura-proiektuetarako laguntza. Laguntza-ildo horren bidez, kultura-erakundeek laguntza jasotzen dute “mugaz gaindiko lan kolektibo batera eta kultura- eta arte-jarduerak sortzera bideratutako proiektuak” egiteko. Horren asmoa hainbat herrialdeetako antzokien, museoen, profesionalen elkarten, ikerketa-zentroen, unibertsitateen, kultura-institutuen eta agintaritzaren publikoaren arteko lankidetzaren bultzatzea da.
- Europako kultura-eremuko erakunde aktiboentzako laguntza. Europan kulturaren arloan diharduten edo jardun nahi duten kultura-erakundeek gastu operatiboentzako laguntza

<sup>2</sup>[www.culturelink.org](http://www.culturelink.org).

<sup>3</sup>[http://ec.europa.eu/culture/documents/publications/doc1165\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/culture/documents/publications/doc1165_es.pdf).

bat jaso dezakete. Laguntza horien onuradunak ordezkariak eta defentsako agenteak eta sareak, eta elkarrizketa-plataforma egituratuak izan daitezke.

- Analisia egiteko eta informazioa eta babesa biltzeko eta zabaltzeko laguntzak, kultura-lankidetzaren eremuko proiektuen eragina maximizatze aldera. Kultura-sektoreari buruzko datu kuantitatiboen premia handiari erantzuteko, Europar Batasunak laguntzak ematen ditu emaitzen bilketa eta ikerketa errazten duten analisi- eta zabalkunde-jarduerak egiteko eta, Programaren helburuak kontuan hartuta, emaitza horiek ebaluatzeko.

Aldi berean, laguntza-ildo horiek hainbat modalitatetan bereizten dira, laguntzak eta diru-laguntzak jasotzen dituzten proiektuen arabera. EACEA agentziak (Education, Audiovisual and Culture Executive Agency) hezkuntza eta prestakuntzaren, herritartasun aktiboaren, gazteriaren, ikus-entzunezkoen sektorearen eta kulturaren eremuetako programak finantzatzeko deialdiak kudeatzen ditu. Programa horiek egitura beraren barruan biltzeak kudeaketa koordinatzeko eta onuradunei zerbitzu orokor osatua eskaintzeko aukera ematen du. Agentzia, zehazki, proposamenetarako deialdiak lantzeaz, proiektuak hautatzeaz, bidezko akordioak sinatzeaz, finantzak kudeatzeaz, proiektuak (bitarteko eta azken txostenak) ikuskatzeaz, onuradunekin komunikatzeaz eta kontrolak lekuan bertan egiteaz arduratzen da.

Edonola ere, kultura-sareei lotutako Europako politika gizarte zibilaren eta hirugarren sektorearen antolamendurako emandako laguntzan hedatu da batez ere. Izan ere, Europar Batasunak, UNESCOk eta Erkidegoko testuinguruan kulturaren eremuan diharduten erakunde motek gobernu kanpoko erakunde ugariaren sorkuntza sustatu dute azken hamarkadetan. Erakunde horiek, elkarrekiko lankidetzan, ezagutzan eta laguntzan oinarritutako diskurtso europeista baten babesean, funtsezko zeregina betetzen dute Europako hainbat herrialdetako agenteen arteko topaketarako eta elkartruckerako sare eta gune gisa. Raymond Weber-en arabera<sup>4</sup>, azken urte hauetan Europako kultura-lankidetzan etorkizunik oparoena izan duen garapena gizarte zibilaren eta gobernu kanpoko erakundearen garapena da: elkarteak, fundazioak, kultura-sareak eta abar. Erakunde horien finantza-ahultasuna gorabehera (edo, beharbada, ahultasun horren ondorioz), arlo horretan dago sormen, berrikuntza, dinamismo eta mugaz gaindiko lankidetzarako borondaterik handiena.

Horrela, beraz, esan daiteke europar esparru bat dagoela kultura-eremuan eta kultura-sareei dagokienez, baina, gaur egun, ez dago argi eta garbi zehaztutako Europako kultura-politika bat. Egia esan, sektore askok uste dute ez dagoela horren beharrik, eta subsidiariotasunaren printzipioan oinarritzen dituzte beren argudioak<sup>5</sup>.

Kontuan izan behar da Europar Batasunak eta gainerako erakundeek garatutako laguntza eta programa guztiak antolatutako eta juridikoki egituratutako kultura-agenteei zuzenduta

<sup>4</sup>Europako Kontseiluko Kultura eta Ondareko zuzendari ohia. Perspectives de développement à moyen et à long terme unitateko zuzendaria Club du Sahel et de l'Afrique de l'Ouest/OCDE izenekoan, eta Garapen Iraunkorrerako Luxenburgoko Kontseiluko presidentea.

<sup>5</sup>Subsidiariotasunaren printzipioaren arabera (printzipio horren definiziorik zabalenean), arazo bati agintaritarik hurbilenak eman behar dio irtenbidea (arau-agintaritzak, agintaritza politikoak edo agintaritza ekonomikoak). "Subsidiariotasun-

daudela. Gaur egungo diskurtsoetan hirugarren sektorearen aintzatespena kulturaren sustatzaile eta berrikuntzaren eta sormenaren adibide gisa gero eta nabarmenagoa bada ere, ez dago apustu zehatzik juridikoki hain araututa ez dauden kolektibo eta ekimen informalagoetan laguntzeko.

Kultura Programaz gain, badira sareen garapenean, sareko lanean eta kulturari lotutako beste gai batzuetan lagun dezaketen beste programa batzuk ere. Hona hemen horietako batzuk:

- Gazte Ekintzaileen programa<sup>6</sup>. 13-30 urteko gazteei eta gazteriaren eremuan diharduten agente guztiei zuzenduta dago. Programaren helburuen artean, honako hauek azpimarra daitezke: batetik, herritartasun aktiboaren sustapena, bestetik elkartasuna, tolerantzia eta gazteriaren arloko Europako lankidetzaren sustapena, eta, azkenik, hainbat herrialdetako gazteen arteko elkar ulertzea.
- Comenius<sup>7</sup>. Programa haur-hezkuntzara, lehen hezkuntzara eta bigarren hezkuntzara zuzenduta dago. Batzordearen helburuak honako hauek dira: Europako kulturen aniztasuna eta balioa ezagutu eta uler daitezen sustatzea, eta gazteen garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako oinarritzko gaitasunak eskuratzen laguntzea.
- Europa herritarrekin<sup>8</sup>. Herritarrek Europako integrazio-prozesuan aktiboki parte har dezaten, hainbat herrialdetako herritarren eta erakundeen arteko lankidetzara sustatzera zuzenduta dago programa, bil daitezen eta Europako ingurunean elkarrekin jardun dezaten.

Azkenik, adierazi beharra dago Kultura Programa ordezkaturiko duen Creative Europe 2014-2020 Programarekin aldatu egingo direla lehentasunak eta ekintzak. Programa horrek Kulturaren eta sorkuntzaren industriak eta kulturaren ekonomiari lotutako guztia bultzatzea du helburu. Esparru horretan, Europako Batzordeak, kultura-industriaren barruko hainbat sektoretarako funtsen eta operadore txikienezako finantza-bermeko tresna berri baten ekarpena egiteaz gain, jende gehiago eta negozio-eredu berriak erakartzeko planteamendu berritzaileak sustatzeko lankidetzara politikoa babestea du aurreikusita.

Programa berri horren bidez, Europako artisten arteko lotura sinbolikoak eta ekonomikoak sortu nahi dira, jende gehiagorengana iristeko eta globalizazioaren eta ingurune digitalerako trantsizioaren ondorioz sortutako aukerak ikertzeko. Horrela, beraz, programa berri horren babesean, kultura-sareak eta agenteen arteko lankidetzara funtsezkoak izango dira politika

---

printzipioa” Europar Batasunaren oinarritzko printzipioetako bat da, 1992ko otsailaren 7an sinatutako Maastrichteko Itunak (geroago Europar Batasunako Itun deitu zenak) ezarritakoaren arabera. Itunaren gaur egungo formulazioa 5. artikuluan islatuta geratu zen (artikulu hori Lisboako Itunak aldatu zuen 2009ko abenduaren 1ean).

<sup>6</sup><http://www.juventudenaccion.injuve.es>.

<sup>7</sup> <http://www.oapee.es/oapee/inicio/pap/comenius.html>.

<sup>8</sup>[http://europa.eu/legislation\\_summaries/culture/l29015\\_es.htm](http://europa.eu/legislation_summaries/culture/l29015_es.htm).



berriak zehaztean eta, sinergiak sortzeko eta jakintzak eta esperientziak elkartrukatzeko ahalmenari esker, hainbat erronkari aurre egitean (merkatuaren zatikatzeari, adibidez).

### **3.2. Estatuko esparrua**

Globalizazioaren beraren konplexutasuna eta lurralde-errealitate berriak (nortasun nazionala duten eskualdeekin hasi eta Europar Batasunarekin berarekin amaitzeraino) direla-eta, aldatu egin da Estatuak legeria edozein izanik ere kultura-sustapenaren koordinatzaile eta bermatzaile gisa betetzen duen zeregina.

Espanian, estatua deszentralizatuta dago, eta kultura-eskumenak dauden administrazioen artean banatuta daude. Normalean, lurralde berean lau administrazio daude (Estatukoa, Autonomia Erkidegokoa, toki-erakundeena eta tokiko beste hainbat erakunderena –hala nola aldundiena–). Guztiek beren kultura-politika dute, eta esku hartzeko joera izaten dute. Kultura-arloko funtzioak ezaugarri bereizgarri gisa baterako eskumenak dituen sistema bati jarraiki banatzen dira lurralde-mailako botere publikoen artean. Hala ere, badira eskumenak banatzeko arau orokor batzuk ere, berariazko kultura-arlo eta kultura-erakunde batzuei dagokienez. Kasu horretan, Konstituzioak Estatuari baino ez dagozkion eskumen-eduki batzuk zehazten ditu (149.1 artikulua): Espainiako kultura-, arte- eta monumentu-ondarea babestea esportazio eta espoliazioen aurka; Estatuaren titulartasuneko museoak, bibliotekak eta artxiboak, autonomia-erkidegoek horiek kudeatzeko izan dezaketen ahalmenari kalterik egin gabe; jabetza intelektualari eta industria-jabetzari buruzko legegintza; prentsaren, irratia, telebistaren eta, orokorrean, gizarte-komunikabide guztien araubideari buruzko oinarriko arauak (horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek ahalmenak izan ditzakete arau horiek garatu eta betearazteko). Era berean, Konstituzioaren 148. artikulua autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketen beste eskumen batzuk zehazten ditu: eskulangintza, Autonomia Erkidegoaren intereserako museoak, bibliotekak, artxiboak eta musika-eskolak, eta Autonomia Erkidegoaren intereserako monumentu-ondarea. Azkenik, beste eremu batzuetan (hala nola irakurketaren sustapenean, ikus-entzunezkoen sektorearen sustapenean edo beste kultura-industria batzuetarako laguntzan), Estatuko politika bat eta Autonomia Erkidegoko bat ager daitezke.

Gainera, herrialde garatu gehienetan gertatzen den bezala, udalek kultura-ahalegin publikoaren zati nagusia hartzen dute beren gain.

#### **3.2.1. Sorkuntza-sektorearen babesa**

Espanian, erakundeek artistak eta sortzaileak babesteko formularik ohikoena sariak, laguntzak eta diru-laguntzak ematea da. Estatuan, jardun horiek egiten dituen erakunde nagusia Kultura Ministerioa da, mendeko erakundeen bitartez. Eskualdean eta tokiko mailan, autonomia-erkidegoetako, aldundietako eta udaletako kultura-sailen bidez ematen da sorkuntzarako babesa. Hala ere, Estatuko testuinguru orokorrean, azpimarratu

beharra dago zenbait autonomia-erkidegok (Kataluniak eta Euskadik, adibidez) kulturaren sustapenari ematen dioten garrantzia (estrategikotzat hartzen da).

Kultura-helburuak dituzten elkarteak Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak arautzen ditu EAEn. Lege hori elkarte guztietarako da baliozkoa, eta, horren arabera, elkarteek pizgarri orokorrak jasotzen dituzte (onura publikoko elkarteei ematen zaizkienak batez ere). Kultura-boluntarioei buruzko Kultura Ministerioaren Aginduan kontuan hartutakoaz gain, Espainiako kultura-elkarteek kultura-ekintzarako eta kultura-sustapenerako laguntzen deialdi orokorretan eta Kultura Ministerioak kulturaren arloko profesionalen prestakuntzarako eskainitako deialdietan parte har dezakete. Autonomia-erkidegoetan eta toki-mailan, oro har, kultura-elkarteek ez dute berariazko laguntza-ildorik. Nolanahi ere, kultura-arloetan eta, neurri txikiagoan, gazteria-arloetan kulturaren sustapenerako ekintzak egiteko eskaintzen diren laguntzak lortzeko lehiaketetan parte har dezakete (Real Instituto Elcano de Estudios Internacionales y Estratégicos, 2004).

### 3.3. Babes-esparrua EAEn

Gaur egun, EAEko Kultura Sailak (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak zehazki) finantzaketa-ildoak eta finantzaketa-tresnak (diru-laguntzak eta laguntzak barne) eta, kultura-industriaren kasuan, maileguak eskaintzen ditu. Sailak, halaber, sorkuntzarako eta produkziarako laguntzak eskaintzen ditu arte- edo kultura-erakundeentzat.

Laguntza-sistema hori sektorea kontuan hartuta antolatzen da. Hala ere, azken urteotan, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak zeharkako hainbat jardun-ildo jarri ditu abian, eta, horren ondorioz, programa berriak eta horiei lotutako laguntza eta diru-laguntza berriak sortu dira. Zeharkako jardun-ildo horiek dakarten jarduera-esparruak erantzun integralak proposatzen ditu hainbat erronkari aurre egiteko, erantzun partziala edo sektorializatua nahikoa ez denean. Ildo horien artean, Sailaren apustu estrategikoei lotuta dauden eta txosten honetan aztergai dugunarekin zuzeneko lotura duten bi programa aipa daitezke. Kultura 2.0<sup>9</sup> programa eta Sorkuntza Fabrikak izenekoak dira.

Kultura 2.0 programa 2010. urtean jarri zen abian; EAEko kultura-enpresetara zuzendutako laguntza-ildo batean datza, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak bultzatzearen bidez lehiakortasuna, kanpoko merkatuetan finkatzeko aukera, prozesuen hobekuntza eta produktuaren dibertsifikazioa sustatzea du helburu. Nolanahi ere, eremu digitalean berrikuntza teknologikoa eta lehiakortasuna sustatzea da helburu nagusia.

Bestalde, Sorkuntza Fabrikak izeneko programa berrikuntzarako, arte-ikerketarako eta kultura-produkziarako sorkuntza-laboretegien eta tresnen sare batean datza. Fabrika horiek dauden arte-diziplinetako entseguetarako eta sorkuntzarako tokia eskaintzen dute, eta beren proiektuak garatzeko lehen bultzada behar duten kolektiboek eta artistek ematen diete lehenetsia. Gainera, sorkuntzaren inkubagailu izaki, fabrikak bereziki esperimenterari begirako guneak dira, hain zuzen ere, mintzaira berriekin edo diziplinarteko elkarriketarekin lotutako esperimenterari begirakoak.

<sup>9</sup>2010. urtean, 29 proiektu onartu ziren guztira, eta guztizko zuzkidura 262.242 euro izan zen.

## 4. Sareak eta sorkuntza-ingurunea EAEn

### 4.1. Testuinguru orokorra

Gaur egun, sorkuntza-ingurunearen analisiak hainbat oztopori egin behar die aurre, oso ikuspegi desberdinekin lan egiten duten eta esparru eta egitura tradizioaletara egokitzen ez diren harremanak ezartzen dituzten askotariko agenteek finkatutako errealitate baten konplexutasunaren ondoriozko oztopoak, hain zuzen ere. Alabaina, sortzen ari diren sektoreekin eta kultura-sistema sektorial eta industrial klasikotik urrun dauden sektoreekin loturak ezartzeko xedez Eusko Jaurlaritzak sorkuntza-errealitatearen alderdi guztiak ezagutzeko egindako apustua dela-eta, ezinbestean aplikatu behar dira politika egokiak sortzea ahalbidetuko duten begirada berriak.

Ilido horretatik, Sorkuntza Fabriken programa EAeko errealitateari eta premiei erantzungo dien kultura- eta sorkuntza-sistema bat egituratzeko lehen pausu erabakigarria izan da.

### 4.2. Sorkuntza Fabriken programa

Programa horren bidez, lau proiektu lagundu ziren diruz 2010ean (zehazki, «Esperimentaziozko Sorkuntzarako Fabrika», nekazaritza-turismoko eta sorkuntzako AZALA proiektua, Zorrotzaurren Sorkuntza Fabrikak sortzea, birgaitzea eta egokitzea, eta HARROBIA Ekoizpen Eszenikorako Berrikuntza Zentroan inbertsioak egitea), eta 2011rako lau proiektu-modalitate izan ditu, guztiek diziplina artekoak izateko helburua izaki<sup>1</sup>:

- Ikertu: etorkizunean garatu beharreko produktu edo prozesu artistikorako proiektu edo prototipoen atariko diseinua egiteko proposamenak.
- Sorgune: sorkuntzan, produkzioan eta prestakuntzan laguntzeko zentroak.
- Arragoa: ikerketarekin, berrikuntzarekin eta garaikidetasunarekin konprometitutako eta banatzera, erakustera eta jendeak kontsumitzera zuzendutako kultura-produktuak egiteko proiektuak.
- Agertu: zentro, areto, jaialdi, azoka eta abarretan sorkuntza-proiektuak edo -produktuak erakustea edota aurkeztea.

2011ko ekitaldirako diru-laguntza horietara bideratutako guztizko zenbatekoa 1.000.000 euro izan da («Sorgune» modalitatea: 501.000 euro, «Ikertu» modalitatea: 100.000 euro, «Arragoa» modalitatea: 299.000 euro, eta «Agertu» modalitatea: 100.000 euro).

Leku jakin batzuetan sorkuntza-fabrikak logika sektorialari jarraiki jarri dira abian, baina EAEn, oster, diziplinartekotasunaren aldeko apustu irmoa egin da eta bereziki nabarmendu dira arte eszenikoak, arte plastikoak eta ikusizko-arteak.

<sup>1</sup>«Sorkuntza Fabrikak» programaren 2011ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia. Ikertu, Arragoa, Agertu eta Sorgune modalitateetan emandako laguntzen ebazpenak.

Horrela, Sorkuntza Fabrikak programaren barruan honako hauek ditugu gaur egun:

- “Esperimentaziozko Sorkuntzarako Fabrika”, Alfa Arte sozietateak kudeatua. Gaur egun, eskulturetan erabiltzeko material berrien ikerketarekin eta garapenarekin lotutako premia artistikoei eta industrialei erantzungo dien 800 metro karratutik gorako guneko bat ari da egokitzen.
- Azala – Kreazio Espazioa eta Landa Ostata. Haren funtzionamendua programaren aurrekoa da. Kultura-proiektu bat eta turismo-ostatu bat konbinatzen ditu, egungo sorkuntza eta ikerketa artistikoa sustatzeko jomugarekin, arte eszenikoen eta dantzaren esparruan nagusiki.
- ZAWP Bilbao (Zorrotzaurre Art Working Progress) proiektua HACERIA Arteak izeneko Kultura Elkarteak sortu zuen 2008an, Bilboko Deustu-Zorrotzaurreko Ibaierantz auzoko Master Planaren hirigintza-prozesuaren testuinguruan. ZAWP proiektuaren xedea da antzinako industriagune degradatu bat diziplina artistiko guztien arteko erlazioa sustatuko duen guneko bat bilakatea. Proiektu horren zati bat, jada funtzionatzen ari dena, Sorkuntza Fabrikaren programaren barruan finantzatzeko da.
- Harrobia Eskenak, Bilboko Otxarkoagako antzinako elizan kokatuta dagoenak, hiru mailatan banatutako 1.000 metro karratu inguru ditu, eta prozesu eszeniko osoak –hala nola ikuskizun eszenikoen sorkuntza, preproduzioa, altxaera, erakustaldia eta sustapena– hartzeko behar diren azpiegitura teknikoekin hornituta dago. Eskena Euskadiko Produzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak kudeatzen du fabrika hori.
- Gernikako Astra Fabrika, Astra antzinako arma-fabrika birgaitu ondoren sortu zena, foru-herribilduko elkarte soziokultural guztiak kokatzeko.
- Zaramaga Tailerrak deritzona Gasteizko antzinako Arte eta Lanbide Eskola birgaitzean datza, Zaramaga auzoan topaketarako, sorkuntzarako eta produkziarako guneko bat bilakatzeko. Txosten hau idatzi zenean, finantzaketa-arazoak zirela-eta proiektu hori geldituta zegoela adierazi behar da.

Orobat, aurreko urtean, 2011ko maiatzaren 16ko ebazpenaren bitartez, Sorkuntza Fabrikak programaren idazkaritza teknikoaren kontratua esleitu da; haren jomuga zera da, agente interesdun guztiei proiektuari buruzko informazioa ematea, eta baita beste hainbat eginkizun ere, besteak beste, sorkuntzarekin lotutako kultura-agenteen mapa baten sorkuntza, etengabeko elkarrizketa eta sinergiak ezartzea ahalbidetuko duena, hain zuzen<sup>2</sup>.

Ingurune digital berrien aldeko apustu eta konpromisoak nahiz sorkuntza-modu eta hizkuntza berrien aldekoak (Sorkuntza Fabrikak programaren zuzeneko xedek dira apustu eta konpromiso horiek) agerian uzten dute EAE ikuspegi klasiko sektorialak eta antolakuntza-egitura tradizionalak gainditzen dituen testuinguru berri batera egokitzeko apustua egiten ari dela. Apustu berri horiek euskal sorkuntza-testuinguruan eta kanpoan

<sup>2</sup>Idazkaritza teknikoaren hainbat lan ari da egiten, hala nola sorkuntzari dagokionez agenteen eta guneen txosten/mapa bat sortzen, “Sorkuntza Fabrikaren” 2. Jardunaldia antolatzen eta sorkuntza-esperientzien sare bat diseinatzen eta abian jartzen.

finkatzeko aukeran duten eragina balioesteko goiz bada ere, zera baieztatu daiteke, abiarazitako jardunak, hein batean, hizkuntzetan eta sorkuntza- eta antolamendu-moduetan berritzeko gero eta finkatuago dagoen joera baterako erakunde-hurbilketa lehenera urratsa dela, hain zuzen ere.

Alabaina, oraindik bide luzea geratzen da erakunde-egiturak eta laguntza publikoko esparrua sorkuntza-ingurune eta -testuinguru berri horietara egokitzeko. Ezinbestean hausnartu behar da sektore publikoak hartu behar duen norabideari buruz eta kolektiboan eta sortzaileen garapen ona ahalbidetuko duen, baina, batez ere, horien dinamismoari eta independentziari eutsiko dien eta gelditasuna saihestuko duen esku-hartze maila egoki eta beharrezkoari buruz.

### **4.3. EAEko sorkuntza-agenten mapa**

Egungo sorkuntza-ingurunea sustatzea lortzeko, lehenik eta behin ezagutu egin behar da nahitaez. Ildo horretatik, eta kultura-alorreko sare motak eta kolektiboak –bereziki, sorkuntzarekin lotutakoak– zehaztea eta sailkatzea korapilatsua bada ere, horrelako kultura-agenten funtzionamendua eta ezaugarriak apur bat hobeki ulertzeko balioko duen sailkapen-proposamen bat erdietsi behar da ezinbestean.

Hain zuzen, EAEn sorkuntza-esparruan diharduten agenteen eta guneen mapaketarako eta identifikaziorako lanak –Sorkuntza Fabrikak programaren Idazkaritza Teknikoa egiten ari denak– hainbat oztopori egin behar die aurre: lehenik eta behin, agente horiek sailkatzeak dakartzan zailtasunak, betiere moduen eta egituren aniztasunari eta diziplinartekotasunari eutsiz.

Jada egindako lanean oinarrituta, hainbat aldagaien arabera egituratutako sailkapen-sistema bat sortzea proposatzen da, aldagai horietatik abiatuz, agente bakoitzari kategoria jakin batzuk esleitzeko eta, horrenbestez, agenteak iragazteko eta tipologiaren arabera antolatzeke.

1. figura. Agenteen sailkapenerako proposamena

	Agente-tipologia		Egitura mota	Jarduera mota Funtzioa*	Sektorea*	Egoitza Gunea
Agenteak	Egitura formalak	Hirugarren sektorea (elkarteak, fundazioak eta abar)	Sareko egitura	Sorkuntza eta ikerketa	Ikusizko-arteak	Berezko gunea
					Arte eszenikoak	
		Enpresa-erakundeak		Prestakuntza	Musika Soinu-sorkuntza	
		Egitura publikoak		Egitura bertikala edo hierarkikoa	Ikus-entzunezkoa	
	Kolektibo informalak	Zabalkundea	Literatura Hitzza		Lagatako gunea	
	Pertsona fisikoak	Artistak Sortzaileak	Egitura zehaztu gabea	Informazioa	Aplikaturako sorkuntza (diseinua, moda, artisautza, arkitektura, publizitatea)	Egoitza birtuala
		Sustatzaileak Kudeatzaileak				

\* Tipologia horiek ez dira baztertzailak elkarren artean, agente berberak hainbat funtzio izan ditzakeela eta aldi berean hainbat esparrutan lan egiteko aukera duela ulertzen baita.

### **Agente-tipologiaren arabera:**

- Egitura formalak: izaera juridikoa duten agenteak dira; izaera juridiko horrekin dira ezagunak, eta izaera juridiko horrek ematen die, hain zuzen, betebeharrak beren gain hartzeko eta erabateko erantzukizun juridikoa –propioa nahiz hirugarrenen kontrakoa– sortzen duten jarduerak gauzatzeko nahikoa ahalmen. Mota horretako agenteen artean honako hauek bereiz ditzakegu:
  - hirugarren sektorekoak (elkarteak, fundazioak eta abar),
  - irabazi-asmoko jarduerak gauzatzen dituzten enpresa-erakundeak,
  - eta egitura eta ekimen publikoak.
- Kolektibo informalak: tipologia horren barnean hartzen dira pertsona fisiko bakar bat izan gabe berezko izaera juridikorik ez duten agenteak, gutxi gorabehera egonkorra den egitura gisa badihardute ere.
- Pertsona fisikoak: banaka, sorkuntzarekin loturiko jardueraren bat gauzatzen duten sortzaileak, sustatzaileak, kudeatzaileak edota pertsonak dira, sorkuntza-ingurunearekin lotuta daudenak.

### **Egitura motaren arabera:**

- Sareko egitura: “sare” kontzeptuarekin loturiko printzipioetan oinarritutako antolamendu edo funtzionamendua duten agenteak (horizontaltasuna erabakiak hartzeko prozesuetan, dinamismoa, konektibitatea kideen artean eta abar), beren buruari “sare” deitzen ote dioten alde batera utzita.
- Egitura bertikala edo hirarkikoa: erakundearen barruan hainbat erantzukizun-mailarekin lotuta dagoen barne-hierarkia bati jarraiki antolatzen dituen agenteak.
- Egitura zehaztu gabea: pertsona fisiko guztiak egongo dira kategoría horren barruan, eta baita barneko eta kanpoko funtzionamendu-sistematik zehaztuta ez dutenak ere, larrialdia edota dimentsioa direla-eta.

### **Jarduera motaren eta funtzioaren arabera:**

- Sorkuntza eta ikerketa: sorkuntza-proposamen eta -proiektu berriak sortzean, berritzean edota abiaraztean oinarritutako jarduera nagusia duten agenteak.
- Prestakuntza: sorkuntza-esparruaren barruan prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako lanetan diharduten agenteak. Jarduera hori hainbat modutan gauza daiteke (tailerrak, ikastaroak, mintegiak, argitalpenak eta abar).
- Zabalkundea: kanpoko sorkuntza-agenteei lagunduz nahiz beren sorkuntza-lana hedatuz sorkuntza-proposamenak eta -ekimenak hedatzeko edota erakusteko lana egiten duten agenteak dira.
- Informazioa: sorkuntzari, prestakuntzari edota sorkuntzaren zabalkundeari buruzko informazioa elkartzean eta transmititzean datzan jarduera nagusia duten agenteak dira.

Informazio hori enplegu-eskaintzei, lehiaketei, jaialdiei, diru-laguntzei edota sorkuntza-proiektu interesgarrii buruzkoa izan daiteke.

- Elkartrukea: baterako kultura- eta sorkuntza-proiektuak koordinatuz edota sortzaileen eta kideen mugikortasuna bultzatuz, agenteek talentua, proiektuak, produktuak eta abar elkartruka ditzaten sustatzen dutenak.

### **Sektorearen arabera:**

- Ikusizko-arteak: pinturan, marrazketan, eskulturan, argazkigintzan eta antzeko diziplinetan diharduten guztiak.
- Arte eszenikoak: sorkuntza eszenikoarekin –hots, jokatzeko pentsatuta egonik zorrozki musika-alorrekoa ez den edozein adierazpiderekin– lotuta dauden agente guztiak hartzen dira kategoria horren barnean.
- Musika/soinu-sorkuntza: musika-sorkuntzarekin edota soinu-sorkuntzarekin (horien zentzu zabalean, esaterako, soinua sortzea eta editatzea, edota gehien gailentzen ari den soinu-arteak) lotuta dauden agenteak.
- Ikus-entzunezkoa: ikus-entzunezko edukiak lantzen dituzten agenteak, telebistarekin eta zinemarekin nahiz horrelako sorkuntzak erakusteko eta zabaltzeko zirkuitu berriekin loturikoak.
- Literatura/hitza: idatzitako hitzaren sorkuntzarekin, zabalkundearekin, prestakuntzarekin edota ikerketarekin lotutako agenteak.
- Aplikatutako sorkuntza (diseinua/moda/artisautza/arkitektura/publizitatea): aplikatutako sorkuntza deritzon oinarritutako azpisektore edo diziplinekin lotutako agente guztiak hartzen dira sailkapen horren barnean.
- Internet/gizarte-sareak: Internetek eta gizarte-sareek parte hartzeko eta elkarri eragiteko eskaintzen dituzten moduak aprobetxatuz horien erabilerarekin lotutako jardura duten agenteak.

Sektore horietakoren batean katalogatzen zailak diren proposamenak eta agenteak egotea erraza denez gero (sektore baten eta beste baten mugan daudelako edota sektore batekin baino gehiagorekin lotuta daudelako), kategorizazio horrek ez du baztertzaila izan behar.

### **Egoitzaren edo gunearen arabera:**

- Berezko gunea: beren jardura gauzatzeko berezko azpiegitura, ekipamendua edota gune fisikoa duten agente guztiak, eta gune fisiko hori beren jabetzakoa nahiz hirugarrenei alokatua izan daiteke.
- Lagatako gunea: kategoria horren barnean hartzen dira beren jardura gauzatzeko lagatako titulartasun publiko edo pribatuko guneren bat duten agenteak.
- Egoitza birtuala: toki fisiko zehatzik eduki gabe, jardun- eta lan-ingurune gisa sarea (Internet) erabiltzen duten agente guztiak hartzen dira kategoria horren barnean.

Kontuan hartu behar da sailkapen hori sorkuntza-agente eta -kolektibo mota berrien funtzionamendua eta ekintza-esparrua ulertzen laguntzeko jomuga duen proposamena



baino ez dela, eta honenbestez, ez dela hartu behar sailkapen zurrun eta hermetikotzat, egokitzen jarraitu behar baitu, errealitatearen azterketa eta egituraketa hein handiagoan errazteko.



## 5. Laburbiltzeko

### 5.1. Sareko sorkuntzari eta gaur egungo sorkuntza-sistemari lotutako funtsezko ideiak

- Sareko lana eta egungo sorkuntza-moduekiko lotura kontzeptuzko bilakaera eta bilakaera operatiboa izaten ari da. Lankidetzeta-modu informal berriak eta ugariak, egiletza-kontzeptu klasikoek izandako aldaketak, Internetek komunikaziorako eta lanerako oinarrizko tresna gisa duen eginkizuna edota diziplinartekotasuna ditugu sorkuntza-testuinguru berriaren ezaugarriak, eta bilakaera izaten jarraitzen dute, diziplina gehiago irensten, metodo berriak eta teknologia gehiago, hain zuzen ere.
- Erakunde-laguntzarako egiturak, agente mota berriak daudela eta horiek gero eta garrantzi handiagoa dutela identifikatzen badute ere, dauden premiei erantzuteko nahikoa bizkorrak eta moldagarriak ez dira.
- Sorkuntza Fabriken programa EAEn ezarritako eredu berria da, premiei erantzuteko eta sorkuntza-ingurune berri hori sustatzeko jomuga duena, diziplina arteko ikuspegitik sektoreei eta sortzen ari diren sorkuntza-proposamenei lagunduz. Haatik, abiarazi zenetik debora-tarte laburra igaro da, eta horretaz gain, zehazturiko ibilbide-orririk ez dagoenez, izaten ari den ondorioak ezin dira balioetsi.
- EAEko egungo sorkuntza-ingurunea osatzen duten agenteen heterogeneotasunak agente horien identifikazioa, eta batez ere, sailkapena zailtzen ditu, eta horregatik, barne-hartzaileak izanik agenteen egituraketa, eginkizuna eta kokapena behar bezala ezagutzea ahalbidetuko duten azterketa-sistemak sortu behar dira derrigorrean.

### 5.2. Orientabide orokorrak

Txosten honen sorkuntzari esker, nabarmendu nahi den sorkuntza-errealitatea korapilatsua dela egiaztatu ahal izan dugu, baina horretaz gain, apustu hori beharrezkoa dela ere berretsi ahal izan da, modu eta ingurune berrien bilakaerarekin bat datorrelako. Hain zuzen ere, kultura-politikek ezin diote bizkarra eman gaur egun aurrekaririk gabeko formen eta hizkuntzen dinamismoak, ugaritasunak eta aldiberekotasunak markatzen duen errealitateari.

Txosten honen amaierako puntu gisa, sorkuntza-ingurunearen jakintza handiagoan eta haren egituraketa hobean aurrera egiten jarraitzeko kontuan hartu beharreko hainbat orientabide planteatzen dira.

*Sorkuntza-agenteen mapaketari dagokionez*

EAEko sorkuntzarekin lotutako agenteen mapak dagoen heterogeneotasunarekin bat etorri behar du, eta baita begirada egituratua ekarri ere, informazioa ahalik eta gehien aprobetxatzea ahalbidetuz.

Sorkuntza-ingurunearen egituraketa –agenteen arteko harreman handiagoa eta euskal sorkuntzaren sendotzea ahalbidetzen duena– barne-hartzaile eta eguneraturanzko lehen urratsa izan behar du mapak.

*Sorkuntza Fabriken eginkizunari dagokionez*

Fabrikak sorkuntza-sare global baten nodu gisa. Inbertsioak eta diru-laguntzak konprometitu beharrean, helmuga izango den eta programan kokatutako ekintza guztietarako noranzkoa ezarriko duen ibilbide-orri zehaztua eta proiektua behar ditu programak.

Sorkuntza-fabrikek gorabidean dagoen sorkuntzarako guneak izan behar dute.

*EAEko sorkuntza-inguruneari dagokionez*

Agenteak identifikatzeko lanak nahiz Sorkuntza Fabriken programaren garapenak eta finkatzeak nazioartean aurkezteko balioko duen euskal sorkuntzarekin loturiko kalitate- eta berrikuntza-marka finkatzeko jomuga izan behar dute.

## Bibliografía

- ALBERICH PASCUAL, J.; ROIG TELO, A.: "Creación colectiva audiovisual y cultura colaborativa on-line" in *Revista Icono*, 15, 85-97.
- AUTISSIER, A. M.: *L'Europe de la culture, Histoire(s) et enjeux*, Maison des Cultures du Monde/Actes Sud, 2005.
- BRUN, J.; BENITO, J.; CANUT, P.: *Redes culturales. Claves para sobrevivir en la globalización*, Madril 2008; Nazioarteko Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentziak egindako azterlana.
- CASACUBERTA, D.: *Creación colectiva. En Internet el creador es el público*, Bartzelona, 2002.
- CASTELLS, M.: "Materials for an explanatory theory of the network society" in *British Journal of Sociology*, 51:1 (2000), 5-24.
- MANDUJANO ORTIZ, R.: "¿Madurez de las redes culturales en Europa?" in *Portal Iberoamericano de Gestión Cultural* [online], 14. Redes culturales (2006ko uztaila).
- MARÍN GARCÍA, T.: *Creación colectiva. Análisis comparado de los equipos de artes visuales en la Comunidad Valenciana de 1981 a 2000*, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Valentzia, 2008.
- KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA: *Sorkuntza Fabrikak*, Kulturaren Euskal Behatokia, 2010.
- PARTAL, A.: *Xarxes Culturals. Coneixement i valor públic*, Bartzelona, 2010; Consell Nacional de la Cultura i les Arts de Catalunya (CoNCA) erakundearen laguntza batetik abiatuz egindako azterlana.
- PASSERON, R. (zuzendaria); BAUDINET, M. J. et al.: *La creation collective*, Groupe de recherche d'esthetique du Centre national de la recherche scientifique, Paris, 1981.
- REAL INSTITUTO EL CANO DE ESTUDIOS INTERNACIONALES Y ESTRATÉGICOS. *La política cultural en España*, Madril, 2004.
- WEBER, R.: "Los nuevos desafíos de la cooperación cultural europea" in *Pensar Iberoamerica Revista de cultura* [online], 2.



# Eranaskinak

## 1. eranskina: erakundeen kultura-sareak, Europar Batasunak finantzatuak

### CReATE- ICT Innovations in Creative Industries

<b>Izena</b>	CReATE- ICT Innovations in Creative Industries
<b>Erakunde sustatzailea</b>	MFG Baden-Württemberg mbH Informazio Teknologien eta Komunikabideen Berrikuntzako Agentzia Publikoak koordinatzen du proiektu hori.
<b>Titulartasuna</b>	Europako zazpi eskualde-erakundek osatutako sarea (agentziak, partzuegoak eta unibertsitateak).
<b>Helbidea</b>	Breitscheidstr. 4 0174 Stuttgart (Alemania)
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.lets-create.eu/">http://www.lets-create.eu/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Sorkuntza-industriak eta IKTak.
<b>Aurrekariak</b>	Sorkuntza-industriek bereziki eskualde-esparruan eskaintzen dituzten hazkunde-potentzialtasunengatik sortu zen sare hori. Industria horiek, IKTek hainbat esparrutan –hala nola publizitatean, baliabide digitaletan, jokoetan eta diseinu elkarreragilean– ematen dieten indar eragilearekin, ikerketarako, garapenerako eta negozioetarako lehiakortasun-abantaila ugari dakartzate, eta horregatik, Europan inpaktu ekonomiko handia duen etorkizuneko merkatutzat hartzen dira.
<b>Deskribapena</b>	Kultura- eta sorkuntza-industria teknologia berrien bitartez sustatzeko ekimenak gauzatzen dituzten Europako hirien sarea.
<b>Antolamendua</b>	Sarearen burua MFG Baden-Württemberg da, eta Europako lau eskualdetako kideak koordinatzen ditu: Baden-Württemberg, Rhône-Alpeak, Piemonte eta West Midlands. Hona hemen zazpi kideak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• MFG Baden-Württemberg - IKTen eta Komunikabideen Berrikuntzako Agentzia</li> <li>• Steinbeis-Europa-Zentrum (SEZ)</li> <li>• CSP - Berrikuntza IKTetan</li> <li>• Regione Piemonte</li> <li>• Torinoko Politeknikoa</li> <li>• Imaginove</li> <li>• Advantage West Midlands (AWM)</li> </ul>

.../...

.../...

<b>Eginkizuna</b>	<p>Sorkuntza-sektorearen berrikuntza-gaitasunak hobetzeko eta eskualde-esparruan nahiz European lankidetzak hobetzeko estrategiak garatzea, ikuspegi berezia enpresa txikietan eta ertainetan egonik.</p> <p>CReATE sarearen jomuga ikerketaren alorreko Europako agenteak, enpresak eta sektore publikoa lotzea da, eta horretaz gain, baterako ikerketa-agenda bat garatzea.</p>
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikerketa-esparruak identifikatzea, sorkuntza-industrien lehiakortasuna sustatzeko Emaizta nagusietako bat –hazkunde-ahalmen handiko merkatuetarako teknologietan zentratuta egongo litzatekeena– eskualde arteko baterako ikerketa-agenda bat garatzea litzateke, eta horretaz gain, IKTen esparruko ikerketarako lehentasunak ezartzea, sorkuntza-industriekin loturiko berrikuntza eta oro har, elkarleen sustapena.</li><li>• Europako sorkuntza-industriako sare berritzaileen lankidetzak estrategikoa bultzatzea Proiektuko kideez harandikiko beste eskualde batzuetako ETEak, ikerketa eta agente publikoak sartzeko eta gaitzeko jomugarekin, tresna multzo bat eta gaikuntza-tailer bat garatuko dira. Tresnen kita kasu-azterketetan, gomendioetan eta oinarritzko informazioan oinarrituta dago. Gaikuntza-tailerrak proiektuaren bitartez lortutako emaitzak eta jakintza teknikoak zabaltzen laguntzen du.</li><li>• ETEei ikerketan eta transferentzia teknologikoan laguntzea CReATE sarearen helburuak honako hauek dira: batetik, ETEetan I+Garen jakintzak eta onurak indartzea, bestetik, antzeko enpresekin eta ikerketa-institutuekin nazioarteko loturak hobetzea, eta azkenik, abilezia eta jakintza espezializatuak elkartrukatzeko eta sustatzeko xedez eskualdeen arteko lankidetzak bultzatzea.</li><li>• Paneuropar plataforma bat sortzea, sorkuntza-industriak IKTeetako adituekin eta ikerketa-institutuekin lotzeko. Ikerketa-politiketan eskualde-, nazio- eta erkidego-sinergiak bultzatzeko europar sare bat sortu nahi da, nazioarteko ikuspena lortzeko nahikoa masa kritiko lortzeko.</li></ul>
<b>Finantzaketa</b>	<p>Europar Batasunak CORDIS programaren bitartez batera finantzatua, kideek egindako ekarpenez gain.</p>
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<p>CReATE-ren ikerketa-programak –sarean parte hartzen duten lau eskualdeetako sorkuntza-industrietako adituekin batera garatuak– sorkuntza-industriak eta IKTak bateratzearen ondoriozko hainbat gairi heltzen die, hala nola honako hauei:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ikusmen-esperientzia eta esperientzia elkarreragilea</li><li>• Produktibitate eta automatizazio adimentsurako tresnak</li><li>• Banaketa digitala</li><li>• Mugikortasuna eta elkarreragingarritasuna</li><li>• Erabiltzaileen eta produktuen arteko elkarreragina</li></ul> <p>Gai-esparru horrekin, honako hauek gauzatzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Zabalkunde- eta prestakuntza-workshopak</li><li>• Eskualde-ikerketak, -tresnak eta -azterketak, saretik deskarga daitezkeenak</li><li>• Nazioarteko Mintzaldiak eta Foroak</li></ul>



## European Interest Group for Creativity and Innovation –EICI-

<b>Izena</b>	EICI. Sorkuntzarako eta Berrikuntzarako Europako Interes Taldea.
<b>Erakunde sustatzailea</b>	CReATEren kide-sarea.
<b>Titulartasuna</b>	2010eko maiatzean erregistratu zen EICI elkarte gisa, jardunean 18 hilabete baino gehiago eman ondoren.
<b>Helbidea</b>	MFG Baden-Württemberg Breitscheidstr. 4 • 70174 Stuttgart (Alemania)
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.creativity-innovation.eu/index.php?id=2086">http://www.creativity-innovation.eu/index.php?id=2086</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Sormena eta berrikuntza.
<b>Aurrekariak</b>	<p>CREaTE proiektuan sortu zen interes-taldearen ideia. Sorkuntza-industrien eta teknologiaren arteko loturak sendotzeko jomuga duen sare horretako kideek proiektuaren irismenaz eta kronogramaz haraindi finkatu nahi zuten beren harremana. Horrenbestez, interes-talde horren helburua antzeko xedeak dituzten tokiko eta eskualdeko kideak identifikatzea eta horiekin lankidetzan aritzen jarraitzea da.</p> <p>Irteera-fasean, EICI ekimena MFG Baden-Württemberg mbH IKTen Berrikuntzako Agentzia Publikoak koordinatzen du, hots, CReATE sarearen buru ere baden Alemaniako hego-mendebaldeko Agentziak.</p>
<b>Deskribapena</b>	<p>Europako ekonomia lehiakorragoa eta iraunkorragoa izan dadin lortzeko jomuga duten sorkuntza- eta berrikuntza-ekimenak sustatzeko xedez toki- eta eskualde-agintaritzak lotzen dituen Europako sarea.</p> <p>Toki-, eskualde- eta nazio-ekimenak lotzeko plataforma gisa funtzionatzen du.</p>
<b>Antolamendua</b>	EICI proiektu irekia dugu, elkarlanean aritzekoa. Urtean behin, Batzar Nagusira deitzen dira kide guztiak, eta estrategia-plana aurkezten eta onesten da bertan. Orobat, Batzar Nagusiak bi urtean behin hautatzen du estrategia garatzeko ardura duen Administrazio Kontseilua. Zuzendaritza Batzordea gutxienez 2 pertsonak osatzen dute, eta horien artean, lehendakaria izendatzen da. Kide guztiak boto bakar bat dute.

.../...

.../...

<b>Eginkizuna</b>	Europako sorkuntza-industrien –eskualdekoen nahiz tokikoen– eta berrikuntza-politikaren interesak sustatzeko eta defendatzeko Europako lehen sarea izateko jomuga du. EBko estrategietan eta funtsetan eragina izateko xedea du, eta honenbestez, eskualdeetan eta hirietan sormen handiagoa egon dadin lortzen laguntzen du, baita lehiakortasunean, gizarte-kohesioan, iraunkortasunean eta berrikuntzan ere. Sarearen bitartez, kideen proiektuek ikuspen handiagoa har dezakete nazioartean.
<b>Helburuak</b>	<p>Kontsumitzaileei, sorkuntza-industriei, kultura-erakundeei, ikerketa-erakundeei, hezkuntzari eta sektore publikoei dagokienez sorkuntzaren eta berrikuntzaren artean loturak sustatzean datza helburu nagusia. Laburbilduz, honako helburu hauek ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Sormenaren eta sorkuntza-industrien garrantzia eta bestelako sektoreetan duten inpaktua Europako erakundeetan sustatzea, eta baita toki-esparruan eta eskualde-esparruan ere.</li><li>• Europako eta tokiko arduradun politikoei aholkatzea eta jakintza-zentro gisa jardutea, Europa osoan interesak, adituak eta ekimenak lotuz.</li><li>• Kideen artean sinergiak sortzea eta indarrak batzea, Bruselan dituzten jardueri eta interesei dagokienez, ahots boteretsuagoa eta bateratuagoa izateaz gain, aurkezpenak egitea eta baterako proiektuetarako proposamenak egitea ahalbidetzen baitie horrek.</li><li>• Halaber, proiektuaren emaitzekin lotutako sorkuntza-industria ugariaren emaitzak hedatzeko eta ekimenen artean loturak sortzeko ere balio lezake sareak.</li></ul>
<b>Finantzaketa</b>	Kideen kuoten bitartez finantzatzen da, eta baita Europar Batasunak ematen dizkion funtsekin ere.
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<p>AECI-k EBko honako kontsulta-prozesu hauetan hainbat ekarpen egin ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• “Erkidegoko berrikuntza-politikaren berrikuspena aldatzen ari den egungo munduan” - 2009ko azaroa.</li><li>• “Etorkizuneko Estrategia “ Europa 2020”- 2010eko urtarrila.</li><li>• “Liburu berdea: kultura- eta sorkuntza-industrien ahalmena askatzea” - 2010eko uztaila.</li></ul>

### Creative Clusters in Low Density Areas

<b>Izena</b>	URBACT Creative Clusters in Low Density Areas
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Hiri-garapen iraunkorra sustatzeko jomuga duen URBACT Europako programaren babesean sortutako ekimena; hasiera batean Obidos hiriak (Portugal) sustatu zuen ekimen hori, eta ondoren, toki-oinarriko sorkuntza-estrategiekin loturiko garapen-espektatibak dituzten beste hainbat hiri ertainek.
<b>Titulartasuna</b>	Udalerriek sortutako klusterra.
<b>Helbidea</b>	Obidos, Portugal. e-mail: creativeobidos@cm-obidos.pt
<b>Webgunea</b>	<a href="http://urbact.eu/?id=94">http://urbact.eu/?id=94</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Diziplina anitzekoa
<b>Aurrekariak</b>	<p>Proiektuaren abiapuntua zera da, sormenak hirigune txikien garapen ekonomikoa bultzatzea dezakeela, ez soilik hiri handiena. Sorkuntza-klusterrek sor dezaketen balio erantsi nagusia "hiri sortzailearen eredua" dentsitate txikiko hiriguneetara transferi dezakeela da (eredu hori metropoli handietan eta hiri ertainetan zentratuegia dago). Laburbilduz, orain arte hiri-esparrukotzat harturiko ezaugarri jakin batzuk (irigarritasuna, bizitza kulturala, teknologia-zerbitzuak, lehiakortasunguneak, sare globalak eta abar) hiri ertain eta txikietara transferitzea, hiriak ez baitira gaurkotatuta bizitzeko eta sentitzeko toki bakarrak.</p> <p>Klusterra 2008an sortu zen, eta proiektua 2011ra arte luzatu da.</p>
<b>Deskribapena</b>	Europako udalerrien sarea, kultura- eta sorkuntza-ekimenak bultzatzeko
<b>Antolamendua</b>	Europako zazpi herrialdeetako hamar udalerri osatzen dute sarea, eta Portugaleko Obidos dugu horien burua.

.../...

.../...

<b>Eginkizuna</b>	Dentsitate txikiko hiriguneetan esperientzien eta jardunbide egokien elkartrukea bultzatzea eta sorkuntza-klusterrekin loturiko politiketarako eta ekintza-planetarako gomendioak proposatzea. Laburbilduz, arduradun politikoei eta programa eragileen kudeatzaileei Egiturazko Funtzen programetarako hauta daitezkeen ekimenak zehazten laguntzea.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Sorkuntza-klusterrei dagokienez. Tokiko ekonomiaren oinarria eta gazteentzako aukerak dibertsifikatzea. Sorkuntza-industrietan sortzen ari diren talde berriak sustatzea eta sorkuntzaren gaia erabiltzea hazkunderako ahalmena duten tokiko zenbait industria heldu beriz pentsatzeko.</li><li>• Kultura-ekitaldiak eta -programak, katalizatzaile gisa. Kultura eta kultura-bizitza hiri sortzailearen funtsezko osagaiak dira. Hiri-eslakan kultura-esparruaren eta garapen ekonomikorako politiken arteko mugak lausotzea da jomuga.</li><li>• Hiri sortzailearen sustapena. Klusterraren dimentsio fisikoena da. Hainbat eskalatan instalazio eta azpiegitura sorta berri bat eraiki nahi da, eta horretarako, lehenik eta behin, toki publikoak eta hiriguneak sorkuntza-jardueretara egokituko lirateke (horrelakoetan, erabilerak nahastea funtsezkoa da), eta baita kultura-barrutietara ere, betiere pertsonak erdian kokatuz.</li><li>• Sorkuntza-ekintzaileak eta pertsona talentudunak erakartzea eta horiei eustea. Lagun egitea, sorkuntza-enpresaburuei eta enpresei egokitutako laguntza finantzarioarekin eta aholkularitza espezifikoarekin.</li><li>• Toki-esparruan hezkuntza-alorreko sorkuntza-inguruneen oinarria finkatzea. Hezkuntza-jarduera berritzaileak eta sortzaileak sustatzea lehen eta bigarren hezkuntzetan.</li></ul>
<b>Finantzaketa</b>	Europar Batasuneko URBACT programaren funtsekin finantzatua.
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<p>Toki-esparruan zein sare osoan antolatzen dituzte jarduerak. Gaikako workshopak, showroomak, mintzaldiak eta abar gauzatzen dituzte. Zehazki, programak iraun duen lau urteko denbora-tartean ateratako emaitzak honako hauek izan dira: erreferentziazko azterlan bat, bi mintzaldi handi, gaikako lau tailer, funtsezko bi azterketa-kasu eta Tokiko Ekintza Plan bat parte hartu duten hirietako bakoitzean.</p> <p>Bestalde, ahalegin berezia egin da buletinen, dokumentuen eta artikuluen bitarteko zabalkundeetan.</p>

## ECCE INNOVATION

<b>Izena</b>	ECCE Innovation. Europako hirien eta kultura-zentroyen Europako sarea.
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Nantes Métropole, Europar Batasunak lagunduta.
<b>Titulartasuna</b>	Hiriek, unibertsitateek eta garapen-agentziek osatutako partzuergoa.
<b>Helbidea</b>	2 cours du Champs de Mars 44923 NANTES Frantzia
<b>Webgunea</b>	<a href="http://ecce-network.eu/">http://ecce-network.eu/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Berrikuntza eta sorkuntza-industriak
<b>Aurrekariak</b>	2009ko martxoan, Nantes Métropole-k ECCE innovation abiarazi zuen, sorkuntza-industriaren esparruan jakintza elkartrukatzeko eta transferitzeko Europako proiektu bat, hain zuzen ere.  2009tik 2011ra garatu da proiektu hori.
<b>Deskribapena</b>	Sorkuntza-sektorea ekonomiaren sektorerik dinamikoena dugu, garapen ekonomiko eta sozialaren funtsezko eragilea, hain zuzen, eta beste hainbat industriatan eta sektoretan berrikuntza sortzen du. Sorkuntza-ideiak negozio bilakatzea da proiektuaren gakoetako bat. Eskualde-esparruan kultura- eta sorkuntza-industriekin lotutako gaitasunak, jakintzak eta esperientziak elkartrukatzeko eta transferitzeko xedea du.ko
<b>Antolamendua</b>	Ipar-mendebaldeko Europako 9 kidez osaturiko sarea da, eta Europar Batasunaren INTERREG IVB programaren bitartez finantzatzen da. Nantes Metropolees honako kide hauek osatzen duten partzuergo baten liderra da: Aix-la-Chapelle, Stuttgart, Eindhoven, Dublin eta Cardiff hiriek, Birminghameko Unibertsitateak eta industria-garapeneko sorkuntza-agentzia batek (ACDI), Yorkshiren kokatua.  Erabakiak guztien artean hartzen dituzte, parte hartzeko prozesuen bitartez, kide nagusi batekin eta proiektua kudeatzeko ardura duen koordinazio-talde batekin. Adostasuna lortzen saiatzen dira, ahal dela, eta baita goitik beherako prozesuak saihesten ere.

.../...

<b>Eginkizuna</b>	Kultura- eta sorkuntza-industriek berrikuntzarako duten gaitasuna sustatzea, merkatu berrietarako sarbidea izateko.
<b>Helburuak</b>	<p>Helburu nagusia kultura- eta sorkuntza-industriek berrikuntzarako duten gaitasuna sustatzea da, merkatu berrietarako sarbidea izateko. Aplikazioa lau lan-ildotan oinarrituta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkatu berriak: sorkuntza-industrien eta bestelako industriek arteko merkataritza-akordioek kopurua handiagotzea.</li> <li>• Esparru publikoa: kultura-alarreko ETEek esparru publikoarekin duten konpromisoa garatzea, baita sorkuntzan laguntzeko merkatu horiek hobeki erabiltzeko dagokionez ere.</li> <li>• Finantzaketa: inbertsio publikoa eta pribatua sustatzea, sorkuntza-industrietan enpresa-espirtua indartzeko.</li> <li>• Goi-mailako Hezkuntza eta Ikerketa: sorkuntza-industriek ea ikerketa-erakundeek arteko lankidetzak garatzea eta hobetzea sorkuntza-esparruan.</li> </ul>
<b>Finantzaketa</b>	Kideen ekarpenez gain, Europar Batasunak ere finantzatu zuen proiektua 3 urtean (2009-2011).
<b>Programa eta jarduerak nagusiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Deskribatutako esparruen ildo beretik, sorkuntza-enpresaburuen eta bestelakoek (IKTak, ehungintza, eraikuntza eta abar) artean sektore arteko loturak sustatzeko jomuga dute programek (besteak beste), betiere helburua produktu berriak eta zerbitzu berritzaileak garatzea izanik.</li> <li>• Kontratazio publikoan parte hartzearen eta agintaritzaren publikoaren sentsibilizazioa areagotzearen esparruan, lizitazioek eskaintzen dituzten aukerak aztertze eta hobetzeko jomuga izan du proiektuak.</li> </ul> <p>Finantzaketari dagokionez, Nantes Métropole-k finantzaketa eskuratzeari buruzko azterketa bat eta tokiko enpresetarako inkesta bat –“kultura- eta sorkuntza-sektorean inbertsioak sustatzea: finantzaketa-premiak, joerak eta aukerak” izenekoak– enkargatu ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Goi-mailako Hezkuntzari eta Ikerketari gagozkiela, CIDA Co konpainiak “Pentsatzeko toki bat: arte-alarreko ikerketa eta berrikuntza” izeneko azterlan bat argitaratu zuen, Graham Devlin jaunak idatzia.</li> </ul> <p>Birmingham City University-k ECCE txosten bat egin zuen, eta bertan, ECCE proiekturako egindako Curriculum Garapenaren jarduerak eta alderdi garrantzitsuenak deskribatzen dira. Proiektuaren emaitzaren beste adibide bat zera da, Nantes-eko Arte Ederren Eskola eta Audiencia Kudeaketa Eskola arteetako eta kudeaketako graduondo bat prestatzen ari direla.</p>

## 2. eranskina: kultura-sare independenteak

### LAB FOR CULTURE

<b>Izena</b>	Lab for Culture
<b>Erakunde sustatzailea</b>	European Cultural Foundation
<b>Titulartasuna</b>	European Cultural Foundation entitateak harturiko proiektu independentea
<b>Helbidea</b>	Jan van Goyenkade 5 1075 HN Amsterdam
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.labforculture.org">http://www.labforculture.org</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Diziplina anitzekoa
<b>Aurrekariak</b>	<p>LabforCulture 2004an sortu zen, kultura-agenteen artean komunikazioa eta eztabaida bultzatzeko plataforma birtual bat sortzeko, eta horrenbestez, muga nazionalen haraindian informaziorako eta lankidetzarako sarbidea ahalbidetzeko.</p> <p>Gateway to Cultural Cooperation (G2CC) proiektuak Europar Batasunaren Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso zuen 2004ko abendutik 2006ko abendura, eta LabforCulture ezartzeko lehen esparru teknikoa eta edukiena aurkeztu zuen. Bi urtean, G2CC proiektuak lau antolatzaileen (ECF European Cultural Foundation, ERICarts Institute, Fitzcarraldo Foundation eta On-the-Move Association) arteko partenariotza gisa funtzionatu zuen.</p> <p>Aholkularitza-zerbitzuen, kasuen azterketen eta ikerketaren bitartez, "Europako Lankidetzak Kulturaren Laborategi" bat (orokorrean) eta haren "LAB-Portal" (Lab for Culture) deritzona (zehazki) sortu behar zirela berretsi zen.</p>
<b>Deskribapena</b>	<p>Artisten, agenteen, kultura-profesionalen, gobernuen, fundazio pribatuen, komunikabideen eta kultura-jardunbideetan sarturiko eragile ugariaren arteko mugaz gaindiko elkarreraginerako erabilgarria den informazioa eskaintzen duen plataforma gisa erakusten da Lab for Culture.</p> <p>LabforCulture-ren webgunea iturri irekiko software batekin garatzen da. Webgunearen eduki osoa Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivs 2.5 License lizentzia baten eraginpean dago.</p>

.../...

.../...

<b>Antolamendua</b>	<p>Sarearen gobernu-organo nagusia urtean behin biltzen den Batzar Nagusia da; alderdi interesdun orok eta ekimena babesten duen edonork har dezake parte urtean behingo Batzar Nagusi horretan. Zuzendaritza Batzordea Batzar Nagusi horretan aukeratzen da.</p> <p>Zuzendaritza Komitea proiektuaren garapena, ezarpena eta langile-zuzkidura berrikusteko sortu zen. ECFren Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak, funtsezko finantza-erakunde publikoak eta pribatuak, proiektuen eta kultura-erkidegoko liderrak daude bertan.</p> <p>Sortu zenez geroztik, Lab for Culture-k Kontsulta Foro bat sortu zuen, kultura-sareak, Europa osoko zerbitzu-erakundeak, kultura-behatokiak eta diziplina espezifikoetako sareak biltzeko, eta gai espezifikoei buruzko aholkularitza jasotzeko xedea izaki. Kontsulta Foro horri Kontsulta Talde deritzo orain, eta horretako zenbait kide finkoak dira, eta beste batzuek, ostera, Lab for Culture-k ateratako proiektu espezifikoek premia aldakorren arabera fluktua dezakete.</p>
<b>Eginkizuna</b>	<p>Dauden kultura-baliabideen jakintza-elkartrukea, eztabaida, ikerketa eta optimizazioa ahalbidetzen duen tresna bat eskaintzea, horren ondorioz, mugaz gaindiko lankidetzak bultzatzeko eta kultura-sektorearen garapena sustatzeko, teknologia berriak erabiliz.</p>
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• kultura-profesionalen eta -erakundearen arteko lankidetzari buruzko informazioa, bilaketa eta azterketa sustatzea, finantza-aukerari, aukera kritikoei eta ikerketa-proiektuei garrantzi berezia emanez.</li><li>• Erakundearen eta profesionalen arteko lankidetzak eta konpromisoa bultzatzea, erkidegolan susta dezaten.</li><li>• Sektorerako erakundearen eta banakoaren arteko konexiorako, eztabaidarako eta jakintza partekatzeko gune bat sortzea, sektorearen garapenerako interesgarriak izan daitezkeen gaiak buruz eztabaidatzeko.</li></ul>
<b>Programa eta jarduerak nagusiak</b>	<p>Labfor Culture-ren zabalkunde- eta komunikazio-tresna nagusia bere webgunea da; bertan, kultura-jarduerak ongi garatzeko baliabide espezifikoei buruzko informazioa zentralizatzen du.</p> <p>Web-plataformaren lau oinarriak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Direktorioa: sektorean diharduten arte- eta kultura-erakunde, sare, elkarte eta programa publiko nahiz pribatu, "ofizial" zein "independente" nagusiei buruzko informazioa.</li><li>• Finantzaketa: proiektua, ekimenak edo erakundeak finantzatzeko baliabideak. Mugikortasun-ereduak, fundazioak, korporazio-babesa, filantropia eta finantzaketa-iturri alternatiboak.</li><li>• Proiektuak: mugaz gaindiko lankidetzarako proiektuen hautaketa, partenariotzarako bide, gai eta eredu posibleak iradokitzen dituztenak.</li><li>• Ikerketa: Europako kultura-lankidetzak hobeki ulertzeko eta horri buruzko jakintza gehiago izateko baliabide berrienak, egungo joerak eta dauden eztabaidak laburtzen dituzten argitalpen espezializatuak eta datu-baseak.</li></ul>



## CULTURE ACTION EUROPE

<b>Izena</b>	European Forum for Arts and Heritage, 2008ko apirilaz geroztik, Culture Action Europe da.
<b>Erakunde sustatzailea</b>	European Cultural Foundation
<b>Titulartasuna</b>	Elkarte-izaerako sare pribatua.
<b>Helbidea</b>	10, rue de la Science 1000 - Bruxelles
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.cultureactioneurope.org/">http://www.cultureactioneurope.org/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Artea eta ondarea
<b>Aurrekariak</b>	<p>“European forum for Arts and Heritage” sarea 1992an sortu zen, Europako artisten erakundeei eta kolektiboari ahotsak bateratzea eta Europako instituzioei aurre egiteko presio-lobby gisa jokatzea ahalbidetzeko. Eta horrela, ikuspen handiagoa izateko, eragin-ratioa areagotzeko eta gobernu-instituzioekiko komunikazioak hobetzeko.</p> <p>Artea eta kultura Europako proiektuaren oinarri gisa sustatu beharra, eta Europako politiken adierazpenean eragina izan beharra izan ziren abiapuntua, European Cultural Foundation European Forum for Arts and Heritage eratzeraz bultzatu zuena, hain zuzen ere.</p> <p>65. Trans Europe Halls (Kultura Zentroen Europako Sarea) egin arte ez zuen aukeratu Culture Action Europe sarearen izen berri gisa, sarearen jomuga hobeki deskribatzen zuela uste izan zelako: Europako esparruan jokatzaile aktibo izatea. Jokabide aktiboagoa eta konprometituagoa –erkidego-komunikaziokoa– izatearen garrantzia nabarmentzera aldatzea.</p>
<b>Deskribapena</b>	<p>Culture Action Europe-k Europar Batasunari buruzko informazio pertsonalizatua eta azterketa eskaintzen ditu, kultura sustatzeko ekintzen garapenean elkartrukatzeko, jarrera komunak lantzeko eta ahaleginak errentagarri bihurtzeko gune batez hornituz kultura-eragileak.</p> <p>Elkartutako erakundeak kultura-jardueraren hainbat esparrutakoak dira, hala nola musika orkestretakoak, idazle-elkarteetakoak, ikerketa-erakundeetakoak, kultura-zentroetakoak, antzoki nazionaletakoak, kultura-sareetakoak, abesbatza-jaialdietakoak eta abar.</p>

.../...

.../...

<b>Antolamendua</b>	<p>Sarearen gobernu-organo nagusia Batzar Nagusia da, gutxienenez urtean behin elkartzen da eta elkarturiko kide guztiek har dezakete parte bertan. Sarea sortu zenez geroztik, 18 Batzar Nagusi egin dira Europako hainbat hiritan (Kopenhage, Lisboa, Marseilla, Turin, Lille, Budapest, Varsovia, Helsinki, Brusela eta abar), eta sektorean eragina duten problematika espezifikoiei buruzko eztabaida hartzen dute abiapuntutzat Batzar horiek.</p> <p>Batzarren artean, sarearen koordinazioa garatzen duen erakundea Batzorde Betearazlea da, Batzarrean sortua eta gutxi gorabehera urtean lau aldiz biltzen diren 11 pertsonaz osatua.</p> <p>Sarearen administrazioak eta kudeaketak Idazkaritza bat dute, haren egoitza –lau pertsonaz osatua– Bruselan egonik.</p>
<b>Eginkizuna</b>	<p>Kultura-eragileei Europako proiektuari buruz hausnartzea, interesak identifikatzea eta Europaren garapenean arteen eta kulturaren eginkizuna indartzeko jomugarekin elkarrekin lan egiteko aukera emango dien gunekomun bat ezartzea. Culture Action Europe-k kulturako eta arteko inbertsio publikoak Europa iraunkorraren eta sozialki bateratuaren garapenean laguntzen duelako uste osoarekin egiten du lan.</p>
<b>Helburuak</b>	<p>Elkartearen helburua Europako elkarte, erakunde eta sareei honako hauetarako aukera emango dien gunek bilakatzea da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Europako politikei eta legeei buruzko informazio eguneratu guztia edukitzea, kultura-sektorean eragina izango duena, hain zuzen ere.</li><li>• Informazio hori arteen eta ondarearen sektorearen barruan hedada dadin faboratzea.</li><li>• Europako politikei –dagozkien esku-hartze eremuen gainekoei– buruzko ideiak elkartrukatzea eta politika horien sustapena eta garapena faboratzeko jarduerak koordinatzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>Gaur egun, Culture Action Europe-k 100 kide baino gehiago ditu, eta kide horiek guztiek 14 arte-diziplinatik gorako 50.000 profesional baino gehiago biltzen dituzte.</p> <p>Ondorengo sailkapenean, erakunde elkartuak egoitza zentrala hartzen duten herrialdeen arabera multzokatuta daude. Kontuan hartu behar da erakunde horietako gehienek ekintza-ratioa lurralde-unitate zabalagora iristen dela.</p> <p>Frantzia (23), Belgika (17), Ingalaterra (11), Alemania (11), Holanda (11), Suedia (6), Italia (5), Austria (5), Polonia (4), Irlanda (3), Eslovenia (3), Txekiar Errepublika (2), Espainia (2), Eslovakia (1), Luxenburgo (1), Bielorrusia (1), Hungaria (2), Portugal (1), Kroazia (1), Errumania (1), Zipre (1), Danimarka (1), Norvegia (1).</p>

.../...

Argitalpenak eta egindako azterlanak, batzarren ondorioz gauzatuak:

- Europako kultura-erakundeen kezka nagusiak identifikatzeko memorandumua. 1993.
- Kultura-sektorean eragina duten erkidegoko legeei eta politikei buruzko inbentarioa. 1994.
- Gizarte Zibilaren Kontakturako talde baterako parlamentu-plataforma bat argitaratzea.
- “Europako kultura-sareen premiak”. 1995.
- Politikei buruzko elkarrizketa, EPCK, ECFk eta EFAHk antolatua: EBren etorkizuneko Konstituzio Itunaren kultura-alderdiak. 2002.
- “Europako Kulturari eta Eskualdeei” buruzko azterlana, Nord Pas-de-Calais eskualderako.
- Kultura-alorreko GKEei eta EBren erakunde-erreformaren ikuspegiari, ebaluazioari eta etorkizunari buruzko txostena. 2002.
- “Kultura eta Migrazioa”, Interarts-ek eta EFAHk egina. 2003

Laguntza Europako politiken eta programen planteamenduan:

- Laguntza Kohesioari, Kulturari eta Enpleguari buruzko eztabaidan, Europako Batzordeak sustatutako “Europako kultura-politikaren etorkizunari buruzko Deklarazioan”. 1997.
- Kaleidoscope 2000 eta Raphaël Programak.
- Laguntza EBren etorkizuneko Itunaren 128. artikularen aldatetetan (151. artikulua).
- “70 zentimo kulturarako” kanpaina abian jartzea.
- 3042 finantzaketa-lineari buruzko gutun irekia.
- Kultura arteko Eztabaidarako Gizarte Zibilaren Plataforma baten sorkuntza (EFAH / ECF ekimena).
- Culture Action Europe-k Europako Batzordeak hasitako eztabaida egituraturako hiru plataformen zuzendaritza-taldeetan parte hartzen du, eta baita horien zati izan ere. 2008.
- Europako Batzordeak abiarazitako elkarrizketa egituratuan parte-hartze aktiboa, Kulturaren Europako Agenda hartzeari egin beharreko jarraipen gisa. 2009.
- Arteak sustatzeko “Orain da garaia” (Brusela) kanpaina abian jartzea, European Cultural Foundation-ekin lankidetzan. 2010.

Culture Action Europe-k sektorean eragina duten gaietako buruzko eztabaidak ezartzen dituzten konferentziak eta topaketak antolatzen ditu aldi berean.

Landutako gaiak:

- “Informazioaren Gizarte Globalean Kulturak duen lekua: nola lor dezakegun onura teknologia-aukera berrietatik” (Marseilla) 1995.
- “Europako kultura-sareen lehen topaketa”, Nazioarteko Konferentzia (Turin). 1996.
- “Artea eta Ondarea zerbitzu publiko gisa” Nazioarteko Konferentzia (Amsterdam). 1997.
- “Mugaz gaindiko arte-lankidetzarako europar laguntzaren eredu berriak”. 1997.
- “Kultura-politika egokia Europarako”. 1999.
- “Kulturak Funtsezko Eskubideen Europako Gutunean duen tokia” (Lisboa). 2000.
- “Kultura eta EBren erakunde-erreforma” (Brusela). 2001.
- “Kultura Europako agendara eramatea berriz ere”. 2002.
- “2020 horizontea” (Budapest). 2005.
- “Kulturaren Eskualde Politikak” (Lille). 2004.
- “Zirkulazioak. Kultura eta Migrazioa” (Berlin). 2002.
- “Uhartek eta Zubiak” (Helsinki). 2006.
- “Inside Out. Europako kultura-ekintza berriz imajinatzen”. 2007.
- “Jokaleku Irekia, mugaz gaindiko europar kultura-ekintza”. 2008. .

## EUROPEAN NETWORK OF CULTURAL CENTRES

<b>Izena</b>	European Network of Cultural Centres
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Vereniging Vlaamse Cultuurcentra (Flandesko kultura-zentroen elkarte), honako honetan: Gemenschapscentra vzw (VVC), Belgika
<b>Titulartasuna</b>	Elkarte-izaerako sare pribatua.
<b>Helbidea</b>	European Network of Cultural Centres (ENCC) mailto:office@encc.eu Voßstraße, 22. 10117 Berlin; Alemania
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.encc.eu/home.php">http://www.encc.eu/home.php</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Diziplina anitzekoa
<b>Aurrekariak</b>	<p>European Network of Cultural Centres (ENCC) sarea 1999an eratu zen ofizialki, baina Europako kultura-zentroen arteko lankidetzaren dinamika 1994 inguruan hasi zen.</p> <p>Europako herrialdeen artean kultura-elkartrukea transmititzeko eta sortzeko premia izan zen Belgikako sare independenteetako bat ENCC sarea fundatzera bultzatu zuen abiapuntua, Europako Batzordearen egiturazko funtsen bitartez.</p>
<b>Deskribapena</b>	<p>ENCCk elkartutako kultura-zentroekin (200 baino gehiago) elkarrizketa ezartzen du, horiek ordezkatzeko sare nazionalen bitartez. Horrela, orokorrean, dagozkien herrialdeetan kultura-zentro horiek ordezkatzeko elkarteak eta konfederazioak dira sare horretako kideak.</p> <p>Alabaina, zenbait kultura-zentro banaka daude elkartuta ENCCn, hots, ezin sare nazional zabalagotan elkartu gabe. Kasu horiek salbuespenezkoak dira, eta ENCCri Europako lurralde osoan presentzia zabalagoa izatea ahalbidetzeko begirada estrategikoa dute.</p>
<b>Antolamendua</b>	<p>Gobernu-organo nagusia urtean behin elkartzen den Batzar Nagusia da, eta sare nazional eta kultura-zentro guztiek har dezakete parte bertan. Batzarren artean, sarearen koordinazioa garatzen duen erakundea Batzordea da, Batzarrean sortua eta urtean bi edo hiru aldiz biltzen diren 7 pertsonaz osatua.</p>

.../...

<b>Finantzaketa</b>	ENCCren aurrekontua jasotzen dituen diru-laguntzen araberakoa da hein handi batean. Orokorrean, ehunekoa honako hau izan ohi da: % 30, kideen kuotetatik, beste % 30, aurkezturiko proiektuak gauzatzeko jasotzen dituen diru-laguntzetatik. Eta gainerako % 40a, azkenik, Europako Batzordearen egiturazko Funtsetatik.
<b>Eginkizuna</b>	Jarduera artistikoa eta soziokulturala bultzatzeko eta Europako kultura-zentroyen artean elkarriketa, jakintza eta esperientzia-elkartrukea sustatzeko ordezkartza-plataforma eratzea. Kultura-ekintza Europako nortasun komuna bultzatzen duen lankidetzatresna bilakatzea, lurralde-barrerak apurtzea ahalbidetzeaz gain, elkarturiko herrialdeetako kultura-zentroyen artean lankidetzarako, elkartrukearako eta sustapenerako aukera berriak planteatzen dituena.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Europako herrialdeetako kultura-zentroyen artean kultura arteko komunikazioa sustatzea ahalbidetuko duen sare-zerbitzu profesional bat osatzea Europan kultura-zentroetarako.</li><li>• Zirkuitu egonkorretako eta sortzen ari diren joeretako profesionalen artean jakintza-elkartrukea sustatzea.</li><li>• Interes guztiak antolatzea eta ekintzek kultura-zentroetan duten eragina indartzea.</li><li>• Kultura-zentroetarako eta horien berezko sareetarako finantza-aukerak sortzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>Gaur egun, ENCCk Europako 11 herrialdeetako 13 sare biltzen ditu.</p> <p>Horretaz gain, 5 herrialdeetako 8 kultura-zentro ENCCn banaka elkartuta daude.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Elkartutako Europako sareak.</li></ul> <p><b>Austria</b> (IG Kultur Österreich), <b>Belgika</b> (Centres Culturels de la Communauté, Réseau des Centres culturels de la Communa Wallonie-Bruxelles –ASTRAC–), Vereniging Vlaamse Cultuurcentra - en gemeenschapscentre vzw –VVC–), <b>Bulgaria</b> (Chitalishte Development Foundation –CDF–), <b>Danimarka</b> (Kulturhusene i Danmark), <b>Estonia</b> (Association of Cultural Centres of Estonia –ACCE–), <b>Finlandia</b> (Suomen Kulttuuritalojen Neuvottelukunta SKTNK), <b>Alemania</b> (Bundesvereinigung Soziokultureller Zentren e.v), <b>Hungaria</b> (Kulturális Központok Országos Szövetsége –KKOSZ–), <b>Lituania</b> (Lithuanian Association of Cultural Centres), <b>Norvegia</b> (Norsk Kulturhus Network) eta <b>Polonia</b> (Network of Mazovia Region Cultural Centres).</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Modu independentean elkartuta dauden Kultura Zentroak: <b>Kroazia</b> (2 zentro), <b>Ingalaterra</b> (2 zentro), <b>Italia</b> (2), <b>Errumania</b> (1) eta <b>Eslovenia</b> (1).</li></ul>

.../...

.../...

**Programa  
eta jarduera  
nagusiak**

- **TAKE AWAY CULTURE.** Proposamenen erakusleioa.  
Take Away Culture (TAC) ENCC sareko programa zentraletako bat da, eta kultura-zentro anfitrioi batek gonbidaturiko hainbat kultura-zentrori harrera egitetik abiatuz burutzen da. Horrela, ostatu ematen duen zentroak hainbat “kultura-platerez” osatutako “menu” bat sortzen du, parte hartzen duten kultura-zentroeiei zentroaren kultura-eskaintza, eta hedaduraz, lurraldea ezagutzea ahalbidetuz.  
Merkatugune eta proiektu-elkartruke gisa balio izateaz gain, etorkizuneko lankidetzarako balio lezakeen elkarrizketa-prozesu bati hasiera ematen dio programak.
- **BECC. BRIDGE BETWEEN EUROPEAN CULTURAL CENTRES.**  
Programa horren helburua kultura-zentroetako profesionalen arteko elkartrukea da, elkartutako zentroetako langileen aldi behingo egonaldiaren bitartez. Elkartruke horri esker, parte-hartzaileek kultura-ikuspegi desberdin batean lagun eta parte har dezakete in situ.
- **MINTZALDIAK, KONFERENTZIAK ETA EZTABAIDAK**  
Sarearen programez gain, mintzaldiak, konferentziak eta topaketak antolatzen ditu ENCCk aldi behin, hala nola Shortcut European, European Project Fair (zentroen azoka) eta beste hainbat mintzaldi, hainbat gaitan adituak diren pertsonen emanak.  
European Project Fair-ek kultura-ekipamenduen azoka gisa egiten du lan. Aldi behingo ekitaldi horren xedea da sarearen zati diren zentroek abileziak eta esperientziak parteka ditzaten, eta horretaz gain, etorkizuneko proiektuetarako harremanak ezar ditzaten.  
Shortcut Europe, berriz, urtean behingo konferentzia da, kultura-esparruko profesionalak biltzen dituena, kultura-produkzioak herritartasunaren sorkuntzan eta hazkunde ekonomikoan izan dezakeen eraginari buruz eztabaida dezaten.

## INFORMAL EUROPEAN THEATRE MEETING (IETM)

<b>Izena</b>	Informal European Theatre Meeting (IETM)
<b>Erakunde sustatzailea</b>	“Antzerkiari buruzko Europako eztabaiden” ekimena Polverigi-ko Jaialdian (Ancona, Italia) sortu zen ustekabean, honako hauen eskutik: Philippe Tiry, ONDA-ren fundatzailea/zuzendaria; Patrick Sommier (zuzendaria, MC93); Steve Austen (zuzendaria, TIN); Gordana Vnuk (Eurokaz); Hugo de Greef (Kaatheater); Jean-Pierre Thibaudat (theatre critic, La Libération), Roberto Cimetta eta Velia Papa, Polverigi-ko Jaialdiaren zuzendaria.
<b>Titulartasuna</b>	Irabazi-asmorik gabeko Nazioarteko Erakundea.
<b>Helbidea</b>	19 Square Saintelette 1000 Brusela - Belgika
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.ietm.org">http://www.ietm.org</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Arte eszenikoak
<b>Aurrekariak</b>	IETM 1989an eratu zen ofizialki, nahiz eta arte eszenikoen esparruko kultura-agenteen lehen bilera informala ustekabean sortu zen Polverigi-ko jaialdian, 1981. urtean.
<b>Deskribapena</b>	<p>Informal European Theater Meeting topagune iraunkor, erreal eta birtuala da. Webgunearen eta egiten diren osoko bilkuren bitartez, sarean dauden jarduerak ezagutzeko, horiei buruz eztabaidatzeko eta horietan parte hartzeko aukera dute kideek.</p> <p>IETMk, elkarreragina eta elkarri laguntzea sustatzeaz gain, kideen arteko lankidetzak bultzatzen du, jakintzak partekatuzko, ikuskizunak batera produzitzeko nahiz elkartruke-proiektuetan kide gisa jarduteko.</p> <p>Sareko kideak jardueraren motorra dira. Halere, batzuetan, idazkariak protagonista gisa jokatzen du, arte eszenikoen sektoreko profesionalen eta Batzordeak ordezkaturako kideen artean eztabaidarako ekintzak eta gaiak sustatzeaz gain.</p>

.../...

.../...

<b>Antolamendua</b>	<p>IETM bere Batzar Nagusiak zuzentzen du (kide guztiek osatzen dute); Batzar Nagusia urtean behin biltzen da eta borondatezko zuzendarien Batzordea aukeratzen du (7 ordezkari); zuzendarien Batzordea urtean bi aldiz elkartzen da gutxienez eta kideen izenean, erabakiak hartzeko ardura esleitzen zaio.</p> <p>Kontseilu Juridikoarekin batera, estatutupekoa ez den Kontsulta Kontseilu bat ere badago, 15 kidez osatua (Administrazio Kontseiluko 7 kideez gain); honako helburu hau dute arestian aipatutako 15 kideek:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Sarearen edukia eta zuzendaritza eztabaidatzea.</li><li>• Epe laburrean eta luzean garatzen diren plan estrategikoei buruz aholkatzea.</li><li>• Arte eszenikoen gaineko gai garrantzitsuak identifikatzea, zentzu artistikoari, politikoari, sozialari, ekonomikoari eta abarri dagokienez.</li><li>• Kideekiko harreman estuari eustea.</li><li>• Osoko bilkuretako animazioan aktiboki parte hartzea.</li></ul>
<b>Finantzaketa</b>	<p>IETM bere kide elkartuak ordaintzen dituzten kuota finkoen bitartez finantzatzen da, eta baita erakunde publikoek emandako diru-laguntzen eta sustatutako jardueren sortutako diru-sarreraren bitartez ere.</p> <p>Kideek ordaintzen duten urteko kuota erakundearen urteko negozio-bolumenak zehazten du (subsidiarioak barnean hartuta).</p>
<b>Eginkizuna</b>	<p>Arte eszeniko garaikideen kalitatea, garapena eta produkzioa bultzatzea, sare profesionalen sorkuntza, komunikazioa eta jakintzen elkartrukea eta transferentzia faboratuz.</p>
<b>Helburuak</b>	<p>Elkartearen funtsezko helburua da arte eszenikoen sektorearen barruko sorkuntza-, produkzio- eta banaketa-sektorea zaintzea eta indartzea. Hori lortzeko, IETMk honako xede hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Europako eta mundu osoko arte eszeniko garaikideen esparruko arte-joera eta bilakaera berriei aurrea hartzea.</li><li>• Interes komunak dituzten erakundeak sektore arteko sare batean konektatzea.</li><li>• Nazioarteko aliantzak, elkartrukeak, lankidetzak eta jakintza-transferentzia katalizatzea.</li><li>• Arte eszeniko garaikideen sektorea sendotzea, arteetarako argudio berriak emanez eta ikaskuntza informaleko esperientzien bitartez profesionali lagunduz.</li><li>• Politika publikoan eragina izatea, kultura-politikei buruzko eztabaidetan aktiboki parte hartuz eta zuzeneko sustapena gauzatuz.</li><li>• IETMren neutraltasunaren eta nazioartekotasunaren bitartez, sektoreko eragileak federazioan biltzea.</li></ul>

.../...



.../...

<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>IETMk bi kide-tipologia ditu elkartuta (45 herrialdetik gorako 400 erakunde baino gehiago):</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Kide arruntak:</b> arte eszeniko garaikideen produkzioan eta banaketan aktiboki parte haduen edozein erakunde profesional edota partikular, betiere mugaz gaindiko elkartrukeetarako konpromisoa hartzen badu bere gain.</li><li>• <b>Elkarreak:</b> arte eszenikoak finantzatzen dituen edozein erakunde, hala nola instituzio publikoak, erakunde ofizialak, fundazioak eta abar.</li></ul>
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<p>Jardueraren alderdirik garrantzitsuen eta IETM sortzearen arrazoia informazioaren, komunikazioaren eta jakintza-elkartrukearen kudeaketa dira (Know-How deritzona). Bilera bidez (esate baterako, urteko osoko bilkuretan) eta sektoreko kideen elkartruke zehatzen bitartez, sektoreko agenteen arteko komunikazioa aholkatzeko eta sustatzeko xedea du IETMk. Hona hemen IETMk gauzatzen dituen programa eta jarduera esanguratsuenetako zenbaitzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Focus Point</b> IETM sareko kideen eta beste hainbat gunetako (geografikoak, sektorialak nahiz intelektualak) kideen arteko elkartrukeerako programa. Elkartrukeen gutxieneko iraupena 2-3 urte da, eta ikuspegi desberdinen arteko mugikortasuna, elkartrukea eta lankidetzak du jomuga, betiere programazio- eta elkartruke-alternatiba berriak sor baditzake.</li><li>• <b>Ikerketak</b> Sareko kideren batek iradokitako interes-esparru jakin bateko jakintzak biltzea. Interes esanguratsurik egonez gero, ordezkari bat sor daiteke, argitalpen edo azterlan bat (besteak beste) sor dezakeen bilera satellite bat antolatuko duena, hain zuzen.</li></ul>

## INTERNATIONAL FEDERATION OF ARTS COUNCILS AND CULTURE AGENCIES (IFACCA)

<b>Izena</b>	International Federation of Arts Councils and Culture Agencies (IFACCA)
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Gobernuak
<b>Titulartasuna</b>	Irabazi-asmorik gabeko Nazioarteko Federazioa.
<b>Helbidea</b>	PO Box 788, Strawberry Hills, NSW 2012, Sydney, Australia
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.ifacca.org/">http://www.ifacca.org/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Diziplina anitzekoa
<b>Aurrekariak</b>	IFACAA 2001ean eratu zen, kultura-sektoreko gobernu-agentzien gaitasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, sustapenaren, defentsaren, ikerketaren eta sareko lanaren bitartez.
<b>Deskribapena</b>	Federation of Arts Councils and Culture Agencies (IFACCA) sare globala da, kultura-politiken garapenean irismena, publiko-erakartzea eta jardunbide egokiak hobetzeko profesionalen edo erakundeen finantzaketaren eta/edo laguntzaren bitartez artearen garapena babesten duten kontseilu nazionalak eta kultura-agentziez osatuta dagoena.
<b>Antolamendua</b>	<p>Urtean bitan egiten den Batzar Nagusiak zuzentzen du IFACCA, eta kide eta afiliatu bakoitzak Batzar Nagusi horretara ordezkari bat eramateko eskubidea du. Zuzendaritza Batzordea hautatzen da Batzar Nagusian (gutxienez 7 ordezkari eta gehienez 10), Zuzendaritza Batzordea urtean behin biltzen da gutxienez, eta kide guztien izenean erabakiak hartzeko ardura esleitzen zaio.</p> <p>Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Betearazle bat izendatzen du, bizkor konpondu behar diren gaietarako, eta horretaz gain, kontseilari-funtzioak izanik gehienbat sareko kidez edota kideen ordezkariak osatuta egongo diren lan-mahaiak sortu ahal izango ditu.</p>
<b>Finantzaketa</b>	<p>IFACCA bere kide elkartuak ordaintzen dituzten urteko kuoten bitartez finantzatzen da. Nazio Batuek (NB) 2010-2012rako egindako Kalkuluen Eskalan oinarritutako beheranzko hein bati jarraiki ezartzen dira urteko kuota horiek. Urteko ekarpena honela kalkulatu da: dagokion herrialdeak Nazio batuen Eskalan duena bider 20.000 AUD (Australiako Dolarrak) eta borobilduta.</p> <p>Gehieneko ekarpena 100.000 AUD da, eta gutxienezkoa, berriz, 400 AUD.</p>

.../...

<b>Eginkizuna</b>	Arte- eta kultura-jardueraren garapena bultzatzea, ikerketaren eta finantzaketaren bitartez eta kultura-elkartrukea eta -transferentzia (erkidegoak indartzeko eta pertsonen bizitza aberasteko eragile diren aldetik) ahalbidetzen dituzten politika publikoak sustatuz.
<b>Helburuak</b>	<p>Federazioaren funtsezko helburua kultura-sektorea zaintzea eta indartzea da, arte- eta kultura-ekimenen bikaintasuna eta aniztasuna babesteko erantzukizun publikoa duten pertsona guztientzako topagune bat ezarriz; horretarako, honako hauek gauzatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Sektorera finantzatzen duten gobernu-agentzien lidergoa babestea, akordioa sustatzeaz gain, lankidetzaren nabarmenak eta globalizazioaren erronkei eta aukerei eta aldaketa teknologikoei aurre egitea ahalbidetzen duten sare globalak eratzuz.</li><li>• Kudeaketa, informazio-elkartrukea, kultura-politikei buruzko jakintzarako sarbidea eta jardunbide egokiak hobetzea, eta horrenbestez, jakintza kolektiboa finkatzea eta ikerketak eta azterketa-dokumentuak egin daitezkeen sustatzea.</li><li>• Arteek politika publikoaren gainerako sektoreetan duten eraginari buruzko eztabaida suspertuz, arteetako eta kultura-jarduteetako inbertsio publikoaren balioa bultzatzea.</li><li>• Agentziei lankidetzaren proiektuetarako itunak egiten laguntzeko baliabideak garatzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>Eratu zenez geroztik, IFACCA fundazioa nabarmen hazi da, eta gaur egun 75 herrialdetara baino gehiagotara iristen da, kontinente guztiak barnean hartuz. IFACCAk 300 aliantza estrategiko baino gehiago itundu ditu kideekin, sare eta erakunde nazionalekin, fundazioekin, korporazioekin eta gizabanakoekin.</p> <p>Bi kide-tipologia ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Kide nazionalak</b></li></ul> <p>Arteetako kontseilu nazionalak edo gobernu-agentziak (baita kultura-ministerioak ere), finantzaketaren eta/edo sustapenaren bitartez arteak eta kultura babesteko zeregin nagusia dutenak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Afiliatuak</b></li></ul> <p>Arteen babes publikoarekin konprometitutako erakundeak, sustapen- eta defentsa-jardueretan nahiz arteei eta kulturari buruzko politiken diseinurako eta ikerketarako jardueretan sartutako instituzio publiko edo pribatuak, fundazioak eta dohaintza-funts publikoak edo pribatuak barnean hartuta. Gizabanakoak ere onartzen ditu kide afiliatu gisa, betiere IFACCAren helburuekin bat datozen adituak badira eta Federazioaren kide bilaka daitezkeen erakundeekin loturarik ez badute.</p>
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• IFACCA sareen laguntzaile gisa. IFACCAk erakunde ugarietako aliantza estrategikoak ezartzen laguntzen du, horiek beren programak gauza ditzaten. Sareak eratzen ditu eta arteak finantzatzen dituzten agentzia nazionalen arteko lankidetzaren eta akordioa bultzatzen du.</li><li>• IFACCA defendatzaile gisa. Lidergo-eginkizuna du, arteetako inbertsio publikoaren printzipioa defendatzen baitu, eta horretaz gain, arteak finantzatzeko programen garapenean eta sustapenean jardunbide egokiak perfektionatzen dituzten tresnak eskaintzen baitizkie kultura-agentziei.</li><li>• IFACCA ikertzaile gisa. Elkartrukeko plataforma fidagarria eskaintzen duenez, IFACCAk jakintzarako, ikerketarako, jardunbide egokiaren ereduaren eta mundu berriko aukerei aurre egiteko politikei buruzko egungo nazioarteko foroetarako sarbidea eskaintzen du.</li></ul>

## LES RENCONTRES

<b>Izena</b>	Les Rencontres
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Honako hauek sortu zuten: Europako Batzordeak, Belgikako frantziar Erkidegoak, Frantziako, Espainiako, Greziako, Lituaniako, Serbiako eta Hungariako Kultura Ministerioek, Frantziako, Austriako Kanpo Arazoetako Ministerioek eta Irlandako Arts Council deritzonak.
<b>Titulartasuna</b>	Irabazi-asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundea (GKE)
<b>Helbidea</b>	8 Villa d'Alésia 75014 Paris. (Frantzia)
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.lesrencontres.eu">http://www.lesrencontres.eu</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Europako kultura-politika
<b>Aurrekariak</b>	Les Rencontres 1994an sortu zen, gobernu-erakundeetarako foro ireki bat sortzeko premiari erantzuteko, Europako hirietan, probintzietan eta eskualdeetan kultura-politika komunen inguruko lankidetzeta, eztabaida eta adierazpena sustatuko lukeen foro bat, hain zuzen.
<b>Deskribapena</b>	Les Rencontres beren hiria edo eskualdea Europako kultura-mapan kokatu eta baterako proiektuen gaineko eztabaidan edo horiek sortzeko prozesuan parte hartu nahi duten toki- eta eskualde-gobernuek eta kultura-erakunde eta erakunde nazionalak osaturiko sarea dugu.  Baterako kultura-politiken garapen eta adierazpenerako tresna erabakigarri gisa balio izatea da sarearen jomuga.
<b>Antolamendua</b>	Sarearen gobernu-organo nagusia Batzar Nagusia da, gutxienenez urtean behin elkartzen da eta sareko kide guztiek har dezakete parte bertan. Zuzendaritza Batzordea Batzar Nagusi horretan aukeratzen da.  Zuzendaritza Komiteak ezinbestean egon behar du herrialde bakoitzeko hiru ordezkari osatuta, eta elkartearen funtzionamenduaren eta zuzendaritzaren gainean hartu beharreko erabakiak hartzeko boterea du, Biltzar Nagusiari dagozkion botereen estatutuei jarraiki.  Zuzendaritza Komiteak, orobat, elkartearen aurrekontua bozkatzeko eta Zuzendaritza Batzordeko kideak (24 kide) hautatzeko eskubidea ere badu. .

.../...

<b>Finantzaketa</b>	<p>Les Rencontres honako hauen bitartez finantzatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kide elkartuek ordaintzen dituzten kuota finkoak.</li><li>• Toki-, eskualde- edo nazio-gobernuen edota Europako Erakundearen (esate baterako, Europako Kontseilua edota UNESCO) subsidioak.</li><li>• Erakunde publiko edo pribatuen finantzaketa.</li><li>• Argitalpenetatik edo sarean sorturiko beste hainbat baliabidetatik datozen diru-sarrerak.</li></ul>
<b>Eginkizuna</b>	<p>Sarea kultura-politikaren esparruan berritzaileak diren proposamenak garatzeko tresna bilakatzeko.</p>
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Tokiko kultura-politiken garapena eta horrelako gaien ardura duten teknikari profesionalen eginkizuna indartzea.</li><li>• Kultura-alarreko politika nazionalak ezartzea.</li><li>• Toki- eta eskualde-agintaritzek kultura-alarrean duten garrantziaren aintzatespena lortzea.</li><li>• Sarean hausnarketa sustatzea eta lankidetzeta eta kultura-politika komunen sorkuntza faboratzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>Jarraian, Les Rencontres sarearekin loturiko instituzioen edo erakundearen kopurua erakusten da, herrialdeen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Bosnia, Bulgaria, Danimarka, Hungaria, Holanda, Polonia, Lituania, Eslovakia eta Turkia: bakoitzean 1.</li><li>• Austria, Finlandia, Txekiar Errepublikak, Serbia, Eslovenia eta Suitza: bakoitzean 2.</li><li>• Zipre, Kroazia, Irlanda eta Grezia: bakoitzean 3.</li><li>• Norvegia eta Alemania: bakoitzean 5.</li><li>• Ingalaterra: 7.</li><li>• Espainia: 8.</li><li>• Belgika, Errumania eta Suedia: bakoitzak 9.</li><li>• Italia: 10.</li><li>• Portugal: 17.</li><li>• Frantzia: 48.</li></ul>

.../...

.../...

### Programa eta jarduera nagusiak

Les Rencontres sarearen jardueraren ardatz nagusia kide elkartuen topaketa eta eztabaida da. Helburuak lortzeko, Les Rencontres sareak honako hauek antolatzen ditu:

- Europako Hiriburuetako batean egiten den Batzar Nagusia, EBren programa adierazgarri horren garrantzia nabarmentzeko.
- Sei hilean behin, topaketa nazional bat egitea Europar Batasunaren Kontseiluaren Lehendakaritza duen herrialdean, espezifikoki herrialde horretako lider hautetsiei.
- Toki- edo eskualde-politikarientzat interesekoak diren hainbat bilera tematiko antolatzea, hala nola, honako gai hauei buru hitz egiteko: sorkuntza-industriak, argazkilaritza, liburuak eta irakurketa, musika-politikak, arte garaikidea, kulturaren eta arteen finantzaketa, kultura-ondarea, irratia eta telebista, artisten mugikortasuna, arte eszenikoak, opera eta abar.
- Europar Batasuneko kultura-agenteentzako urtean behingo gaikuntza-mintegi bat antolatzea.
- Sarearen helburuekiko koherentziari eusten dioten jarduerak, bilerak, konferentziak eta mintzaldiak.

## INTERCULT

<b>Izena</b>	Intercult
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Honako hauek babesten dute sare hori: Swedish Arts Council, Stockholm's Culture Committee eta Stockholm County Council. Era berean, erakunde horiek sarearen finantzaketa-iturri nagusiak dira.
<b>Titulartasuna</b>	Erakunde independentea da, nahiz eta finantzaketaren oso ehuneko handi bat erakunde publikoena izan.
<b>Helbidea</b>	Nytorgsgatan 15 116 22 Stockholm (Suedia )
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.intercult.se">www.intercult.se</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Europako kultura-proiektuak.
<b>Aurrekariak</b>	Sarea Suedian hasi zen lanean 1996an, eta apurka-apurka, Europako beste hainbat tokitara hedatu du bere jarduera.
<b>Deskribapena</b>	Produkzio- eta baliabide-zentro independentea da, kultura-proiektuen garapenean nazioarteko eta tokiko agenteen arteko lankidetzan sustatzen duena. Produkzioen eta baterako produkzioen, mintegien eta bestelako prestakuntza-jardueren bitartez, hainbat agenteren arteko mugaz gaindiko ekimenen aleko apustua egiten du, horien buru da eta horietan laguntzen du.
<b>Antolamendua</b>	Erakunde batzorde betearazleak zuzentzen du, eta lehendakaria da haren buru. Beheko mailan, proiektuen zuzendaria eta idazkari nagusia daude; aholkulari seniorra eta sail bakoitzeko (nazioarteko garapena eta gizarte-garapena) zuzendariak horien mende daude.
<b>Finantzaketa</b>	Sare horren finantzaketa-egitura honako hauetan oinarrituta dago nagusiki: batetik, erakunde publikoek egindako ekarpenak (Swedish Arts Council, Stockholm's Culture Committee eta Stockholm County Council), Intercult-ek beste hainbat agente edo partner-ekin garatzen dituen proiektuetarako finantzaketa, eta mintzaldien, tailerren eta guneen alokairuaren ondorioz lortutako diru-sarrerak.  Horretaz gain, azken urteotan, Intercult-ek sareari laguntzen dioten hainbat agente eta programaren ekarpenak ere jaso ditu: EBren Kultura Programa 2007-2013, Swedish Institute, Nordic Culture Point, Region Västra Götaland, Göteborgs Stad, EC DG Communication, Nordic Culture Fund, European Culture Foundation, Swedish Writers' Union, Foundation for the Culture of the Future eta abar.

.../...

.../...

<b>Eginkizuna</b>	Mugaz gaindiko proiektuen garapenaren aldeko konpromisoa da erakundearen eginkizuna.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kulturartekotasuna sustatzea</li><li>• Europan epe luzeko baterako produkzioak bultzatzea</li><li>• Diziplinartekotasun artistikoan laguntzea</li><li>• Jakintza sortzea eta hedatzea</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	Intercult-ek lotutako hainbat sare ditu, zehazki, honako hauek: <ul style="list-style-type: none"><li>• Nordic Forum for Interculture</li><li>• River/Cities (<a href="http://www.river-cities.net">www.river-cities.net</a>)</li><li>• IETM (<a href="http://www.ietm.org">www.ietm.org</a>)</li><li>• Platform for Intercultural Europe (<a href="http://www.intercultural-europe.org/site/">www.intercultural-europe.org/site/</a>)</li><li>• Culture Action Europe (<a href="http://www.cultureactioneurope.org">www.cultureactioneurope.org</a>)</li></ul>
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	Txosten hau idatzi zenean, Intercult-ek honako proiektu hauek zituen martxan: <ul style="list-style-type: none"><li>• Kulturarako Baliabideen Europako Zentroa (European Resource Center for Culture): datu-base batean eta kultura-informazioko direktorio batean datza, kultura-proiektuak sustatzeko helburua duena, Suedian nahiz Europako beste hainbat herrialdetan eta nazioko nahiz nazioarteko agenteen artean.</li><li>• Corners: Europan kultura-erakundeak epe luzean lankidetzan aritzeko proiektua. Lehen fasean dago orain proiektua, eta etorkizunean baterako produkzioak eta ibilartizak sortzeko ideiak ikertzean eta garatzean datza lehen fase hori.</li><li>• Fast Forward: egungo testuinguru soziopolitikoei erantzuten dien eta diziplina arteko artea sustatzen duen lankidetzan-lanerako plataforma dugu. Suedian eta Balkanetako herrialdeetan kontzentratzen da. Programa horren barruan hainbat jarduera gauzatzen dira: dantzari eta dramaturgiari edo bideodantzari buruzko laborategiak, arte eszenikoei buruzko mintzaldiak edota artearen eta pentsamendu kritikoaren arteko lotura, besteak beste.</li><li>• Black/North Seas: artistak, kultura-agenteak, hirigileak eta politikariak tartean sartzeko xedea duen jaialdi ibiltaria, arte-proposamen osatuak eta diziplina artekoak sortuz. Jaialdia honako toki hauetan egin da: Odessa, Varna, Balchik, Mangalia, Istanbul, Kopenhage, Helsingör, Helsingborg, Göteborg, Alingsås, Tromsö, Skegness, Mablethorpe, Aberdeen eta Batumi.</li><li>• Glorious Death: Intercult-ek produzitutako performancea.</li></ul>



## EUROPEAN THEATRE CONVENTION

<b>Izena</b>	European Theatre Convention
<b>Erakunde sustatzailea</b>	European Theatre Convention
<b>Titulartasuna</b>	Irabazi-asmorik gabeko elkarte
<b>Helbidea</b>	Comédie de Saint-Etienne 7, avenue Emile Loubet 42000 Saint Etienne Frantzia
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.etc-cte.org">www.etc-cte.org</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Paneuropar esparrua
<b>Aurrekariak</b>	<p>Sarea 1988an sortu zen, Comédie de Saint Etienne-ren zuzendari Danile Benoin-en ekimenez (gaur egun Théâtre de Nice-ko zuzendaria da Benoin jauna). Europako mugak irekitzea zen xedea, antzokiek beren lanak eta langileak elkartrukatzeko hasi zitezkeen. Jean-Claude Drouot-ek (National Theatre in Brussels-eko zuzendaria) eta Heribert Sasse-k (Director del Staatliche Schauspielbühnen Berlin) ekimen horrekin bat egin zuten eta 1987ko azaroan sarea eratzekeko estatutuak sinatu zituzten.</p> <p>Sarearen helburu nagusia, hasiera batean, laguntza finantzarioa eta teknikoak emateko sistema bat instalatzea zen, eta baita profil guztietako langileen elkartrukea ere (profil artistikoak, teknikoak eta administrazio-arduradunak).</p>
<b>Deskribapena</b>	20 herrialdetik gorako antzoki publikoen sektorea ordezkatzen du.
<b>Antolamendua</b>	<p>Sarearen egitura finkoa honako hauek osatzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• delegatu nagusia</li> <li>• proiektuen laguntzailea</li> <li>• komunikazioaren eta harreman publikoen arduraduna</li> </ul> <p># administrazio-arduraduna</p>

.../...

.../...

<b>Finantzaketa</b>	Elkartutako antzokiei ekarritako kuoten bitartez finantzatzen da sarea. Gainera, Europar Batasunak ere finantzatzen du sarea gaur egun, "Europako kultura sustatzen duten erakundeak babesteko" laguntzen ildoaren bitartez eta Frantziako Errepublikaren Kultura eta Komunikazio Ministerioak emandako laguntzen bitartez.
<b>Eginkizuna</b>	Arte dramatikoa garaitzea, artisten mugikortasuna babestea eta Europa barruko nahiz kanpoaldearekiko elkartruke-ekimenak garatzea.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Europar antzerki-artearen sortzea, babestea eta sustatzea, eta baita haren hizkuntza-aniztasuna ere.</li><li>• Antzerki-lankidetzarako nazioz gaindiko sare gisa jokatzea, kultura-aniztasuna eta kultura arteko elkartrukea bultzatzeko.</li><li>• Antzerki-programatzaileen elkartruke profesionalerako, garapenerako eta gaitasunerako plataforma gisa jokatzea nazioarteko testuinguruan.</li><li>• Europar antzerki-sektore publikoaren ordezkaritza- eta laguntza-sare gisa jokatzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	20 herrialdeetako baino gehiagotako 44 antzoki sarearekin elkartuta daude.
<b>Programa eta jarduerak nagusiak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Edukiak garatzeko prozesu estrategikoa. Parte-hartze aktiboa bultzatzeko, jarduerak dibertsifikatzeko, sarearen jardunen irismena areagotzeko eta sektore arteko elkarteak irekitzeko hiru gobernu-organo berri sortu dira; sektore arteko elkarte horiek honako hauekin lotuta daude:<ul style="list-style-type: none"><li>o Hezkuntza estetikoa eta antzerki-eskolen Europako sare baten garapena.</li><li>o Europako politikarekin lotutako sustapena eta gaiak (arte-hezkuntza, eleaniztasuna eta gaitasun berrien garapena).</li><li>o Proiektuen garapena, kideak eta sarearen barneko gaiak.</li></ul></li><li>• Arte-lankidetzarako proiektuak.<ul style="list-style-type: none"><li>o Antzoki kideen artean ikuskizunak eta langileak elkartrukea.</li><li>o Arte-hezkuntzarako proiektuak.</li><li>o Europako lan berriak nahiz Europar eta munduan sortzen ari diren sortzaile gazteen lanak ezagutzera emateko jaialdiak: Autorentheatertage, Heidelberger Stückemarkt, World Theater Zagreb, nazioarteko hainbat antzerki-jaialdi Turkian eta abar.</li><li>o Europako antzerkiari eta gizarte zibilaren eleaniztasunari buruzko lau mintzaldi Miskolc-en, Prato-n eta Parma-n.</li><li>o Nazioz gaindiko proiektu berriak: "Zahartze Aktiboa", "Balkanetako Dibertsitateari buruzko Proiektua," "Rafting-a Danubioan".</li></ul></li><li>• Laguntza- eta sustapen-ekintzak.<ul style="list-style-type: none"><li>o Publizitatea, ekitaldien sustapena eta komunikazioko inbertsioa handiagotu nahi dira.</li><li>o Aliantza estrategikoak garatzea, sektorearen barruan zein arduradun politikoeekin eta babesleekin informazio-eta jakintza-elkartrukea biziagotzeko.</li><li>o Sareko eragile guztiak bilduko dituen sustapen-trailer bat produzitzea, jendea antzerkira erakartzeko.</li><li>o Elebidun katalogo bat sortzea, Europako antzerki garaitzeko lanik onenen hautaketa batekin.</li><li>o "Kulturarako sarbidea izateko", "eleaniztasuna sustatzeko" eta "kultura- eta sorkuntza-industrietarako" plataformetan parte hartzea, erabakiak hartzeko prozesuek eragin handiagoa izan dezaten Europako kultura-paisaian.</li></ul></li></ul>

## A SOUL FOR EUROPE (ASFE)

<b>Izena</b>	A Soul for Europe (ASFE)
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Europako Parlamentuaren lan-talde baten –alderdi guztietako parlamentariak osatutakoaren– laguntzarekin sortu zen.
<b>Titulartasuna</b>	Interes Ekonomikoko Europako Taldetzat (AEIE ASFE) hartzen da Bruselan.
<b>Helbidea</b>	Nazioarteko erakundeetako lau eragiketa-base ditu sareak: Felix Meritis Foundation en Amsterdam, Stiftung Zukunft Berlinen, European House for Culture en Bruselan eta Setepés Oporton. Horretaz gain, elkaturiko honako erakunde hauen bulegoak ere baditu: The Cultural Front, Belgraden eta Stichting Caucasus Foundation Tbilisin.
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.asoulforeurope.eu/">http://www.asoulforeurope.eu/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Diziplina anitzeko eta sektore anitzekoa
<b>Aurrekariak</b>	Europako erakundeen eta herritarren arteko harremana argitzeko premia zela-eta sortu zen. Izan ere, Europa eraikitzeak historia nazionalak, balio-sistemak eta munduaren ikuspegiak elkartzea eta kultura arteko elkarrizketa sustatzea esan nahi du. Laburbilduz, honako ideia hau du abiapuntu: europarren Europa eraiki daiteke, erakundeetara eta erregulazioetara mugatutako Europa eraiki ordez, eta baita Europako kulturaren ahalmenean oinarritutako helburu hori praktikan jarri ere.
<b>Deskribapena</b>	Ekimena Europako hirien eta eskualdeen sare batez, kultura-sektoreaz, enpresa-esparruaz eta Europako arduradun politikoez osatuta dago.

.../...

.../...

<b>Antolamendua</b>	<p>Ekimenaren zati dira Europako hainbat politikari eta iritzi-lider, gizarte-esparru guztietakoak. Hainbat gizarte-esparrutako (hala nola ekonomia, gizarte zibila, kultura eta politika) pertsona ospetsuz osatutako Aholku Batzorde batez gain, erakundea honako lan-talde hauek ere osatzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• 21 herrialdetako gizarte zibileko 55 agentez (kultura-esparrukoak, enpresa-esparrukoak, ikerketa-esparrukoak eta komunikabideen esparrukoak) osatutako talde estrategikoa. Ekimenaren kontzeptuzko garapenaren eta zabalkundearen ardura du talde horrek (hainbat proiektu eta programaren bitartez).</li><li>• Parlamentuko lan-taldeak gizarte zibilaren ekimenaren eta arduradun politikoen arteko lotura finkatzen du. Lankidetzaren eredu berritzaile horrek bi printzipio garrantzitsu ditu: batetik, ekimen pribatuaren independentzia eta bestetik, parlamentariak eta arduradun politikoen "boterearen bihotzerako" sarbidea errazteko bitartekari gisa jokatu nahi dutela.</li></ul>
<b>Finantzaketa</b>	<p>Europako gizarte zibilean oinarritutako lankidetzaren formula berria da.</p>
<b>Eginkizuna</b>	<p>Politika-alorraren, gizarte-alorraren eta kanpo-politikaren alorraren jardun-eremu guztiek izan behar dute kultura-osagairen bat. Prozesu horrek bottom-up izan behar du, sektore guztietako gizarte zibilak sustatu behar du, hain zuzen. Europako mekanismo politikoetan esku hartzeko erantzukizuna du.</p> <p>Hortaz, jomuga ez da kulturarako finantzaketa lortzeko xedez presio-talde gisa jardutea; horren ordez, Europaren potentzialtasunaren erabateko garapenaren funtsezko elementutzat hartzen da kultura.</p>
<b>Helburuak</b>	<p>Kulturak Europako politikan duen presentzia finkatzeko helburu orokorrarekin, honako helburu espezifiko hauek ematen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kultura sustatzea eskualdeen garapenean.</li><li>• Kanpo Arazoetarako Batasunaren goi-ordezkararen agendan kulturaren presentzia segurtatzea.</li><li>• Europan herritartasun aktiboa sustatzea.</li><li>• Batzordearen estrategia politikoan kultura eta ekonomia txertatzea.</li><li>• Tokiko kultura-politiketan Europaren erantzukizuna sartzea.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>Ehun partner inguruk osatzen dute A Soul for Europe ekimenean parte hartzen duten kultura-instituzio eta sareen eta Fundazio eta Institutuen zerrenda luzea.</p>

.../...

.../...

**Programa  
eta jarduera  
nagusiak**

Ekimenak hainbat jarduera gauzaten ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira Ekonomia eta Kultura Plataforma, edota ASFEren kontzeptuzko jarrera, Europako Kultura Hiriburuaren proiektuari dagokionez. Honako jarduera eta programa hauek dira nabarmengarrienak, besteak beste:

- Berlineko konferentzia: azken konferentziaren programa (2010ean egin zen azkena) European herritar aktiboak behar direlako ideian oinarritu zen: herritarren Europa, eta ez soilik herritarrentzako Europa.
- Forum X: Europa osoko hainbat hiritan egiten diren bilerak, tailerrak eta konferentziak, gizarte zibilen eta arduradun politikoen arteko lankidetzazko modu berriak garatzeko helburu nagusiarekin, zehazki, tokiko agenteak tartean sartuz (gizarte zibila, politika, enpresak eta abar). Azken hiru urteotan 12 Foro egin dira 12 hiritan.
- Hiriak eta Eskualdeak. Kultura-lorpenek “Europarako arima bat” nola sor dezaketen eta Europako agente gisa egin dezaketen ekarpen praktikoa zein den esploratzeko interesa duten 19 hiriz eta eskualdez osatutako talde batekin ari dira lan egiten. Horrela, jardunbide egokien eskuliburu bat sortu da, kultura-agenteentzat ez ezik, hiri- eta eskualde-garapenerako arduradunentzat baliagarria izan daitekeena.
- European Club Night. Europako zazpi hiritan hainbat dantza-gau antolatuz, Europako gazteen bihotzak eta buruak deskubritzeko ikuspegi berri bat da, hain zuzen ere. Abangoardiako musikaren elkartrukea, artea eta eztabaidak dira gazteen ikuspegiak topatzeko abiarazlea, etorkizun ideal bati dagokionez, edo ideiak dituen etorkizun bati, behinik behin.
- Mintzaldiak European. Kultura-esparruko pertsona ospetsuekin –hala nola Daniel Barenboim-ekin edo Wim Wenders-ekin– eztabaidan aritzeko taldeak; Europako instituzioetako goreneko arduradunak eta agintariak gonbidatu ohi dira talde horietara, horien lehentasun eta ikuspegietan aldaketak eragiteko xedez, kulturari eta kulturak European duen eginkizunari dagokienez.

## EUROPEAN FESTIVAL ASSOCIATION (EFA)

<b>Izena</b>	European Festivals Association (EFA)
<b>Erakunde sustatzailea</b>	Jaialdien Europako Elkarte (EFA) Genevan sortu zen 1952an, orkestra-zuzendari Igor Markewitch-en eta Denis de Rougemont filosofoaren ekimenez, hasierako nukleoa osatzen zuten jaialdiak hamabost izanik (Aix-en-Provence, Bayreuth, Berlin, Besançon, Bordele, Florentzia, Holanda, Luzerna, Munich, Perugia, Estrasburgo, Venezia, Viena, Zürich eta Wiesbaden).
<b>Titulartasuna</b>	EFA gobernuz-kanpoko nazioarteko elkarte profesionala da, irabazi-asmorik gabekoa eta apolitikoa.
<b>Helbidea</b>	Kleine Gentstraat 46 B- 9051 Gent Belgika.
<b>Webgunea</b>	<a href="http://www.efa-aef.eu/en/festivals/">http://www.efa-aef.eu/en/festivals/</a>
<b>Jardun-eremua</b>	Zuzenean gauzatutako arteak eta diziplina anitzeko arteak
<b>Aurrekariak</b>	Bigarren Mundu Gerraren ondoren Europako herrialdeak biltzeko jomugarekin 40ko hamarkadaren amaieran eta 50eko hasieran izandako beste hainbat lorpenekin batera sortu zen Elkarte. Denis de Rougemont-ek nabarmendu zuen European kultura-integrazioa ezinbestekoa zela, Jean Monnet-en honako adierazpen hau bilduz: "Berriz egin beharko balitz, kulturarekin hasiko nintzateke".  Laburbilduz, Elkartearen fundatzaileek konpromiso sakona zuten jaialdien kalitatearekin eta gizarte-erantzukizunarekin.
<b>Deskribapena</b>	Zuzenean gauzatutako arteen eta diziplina anitzeko arteen Europako jaialdien elkarte profesionalik handiena da.
<b>Antolamendua</b>	Elkartearen Idazkaritza iraunkorra Ganten dago, eta hainbat erantzukizun ditu, hala nola jaialdi kideei buruzko informazioa hedatzea eta Elkartearen eta Elkarteko kideen argitalpenak editatzea. Halaber, Bruselan beste bulego bat du, Kulturaren Europar Etxean kokatuta dagoena.  Batzar Nagusia, hots, Elkartearen organo gorena, urtean behin biltzen da.

.../...

<b>Finantzaketa</b>	EFA Europar Batasunaren Kultura Programaren funtsekin finantzatzen da, eta hainbat babesle ditu; horiei dagokienez, nabarmendu beharrekoak dira National Lottery Belgium, Gante hiria eta Flandesko agintaritzak.
<b>Eginkizuna</b>	PJaialdien Europako Elkartearen helburua jaialdiei laguntzea da, eta horretaz gain, horien garrantzia eta nazioarteko kultura-lankidetzan eta egungo gizarteetan duten eginkizun garrantzitsua sustatzea.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kideen ahaleginak koordinatzea;</li><li>• Lankidetzeta eta baterako produkzioa erraztea;</li><li>• Baterako politika ezartzea;</li><li>• Diziplina anitzeko joerak bultzatzea;</li><li>• Arteak gizartean duen eginkizuna nabarmentzea;</li><li>• Eztabaida politiko zabalenean modu entzutetsuagoan jokatzeta.</li></ul>
<b>Erakunde elkartuak</b>	<p>40 bat herrialdeko (gehienak, Europakoak) 100 jaialdi, jaialdi nazional, sare eta kultura-erakunde baino gehiago –musikaren, dantzaren eta antzerkiaren esparrukoak eta diziplina anitzekoak– daude EFAn.</p> <p>1997an bere estatutuak aldatu eta gero, Europako jaialdien ahalik aterki adierazgarriena izateko bidea ireki zuen elkarteak, kide kolektiboentzako kategoria berriak txertatuz. Ondorioz, gaur egun 13 nazio-/eskualde-erakunde daude sarean.</p>
<b>Programa eta jarduera nagusiak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Komunikazioa</i>: Bulegoak kideen arteko harremanak, lankidetzeta eta baterako produkzioa koordinatzen ditu, sarean lan egiteko (online zein offline) aukerak emanez.</li><li>• <i>Jakintza</i>: EFA BOOKS Bildumen bitartez, jaialdiei buruz ikertzeko adore ematen du. Gainera, apurka-apurka jaialdiei buruzko Baliabide, Ikerketa eta Jakintza Zentroa finkatzen ari da.</li><li>• <i>Prestakuntza</i>: Gaikuntza- eta prestakuntza-aukerak eskaintzen ditu, urtean bi aldiz egiten den European Atelier for Young Festival Managers jaialdia antolatuz.</li><li>• <i>Ordezkaritza</i>: Nazioarteko kultura-eztabaidetan jaialdiak ordezkatzen ditu Elkarteak, eta horietan, arteen, kulturaren eta bereziki, jaialdien eginkizuna nabarmentzen du; horretarako, hainbat proiektu adierazgarritan hartzen du parte, esate baterako, Arts Festivals' Declaration on Intercultural Dialogue deritzonean, FestLab for Creativity and Innovation deritzonean edota la European House for Culture izenekoan (Bruselan).</li></ul>

